



ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE-ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERIA
VITORIA-GASTEIZ

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



CROHN-EN GAIXOTASUNA IGORPEN FASEAN DUTEN HELDUEN MANEJU DIETETIKOA

Berrikusketa bibliografikoa

EUE VITORIA GASTEIZ

Gradu Amaierako Lana

EGILEA: Miriam Amunarriz
Larrañaga

HITZ-KOPURUA: 6301 hitz

Vitoria-Gasteizen,
2021eko Maiatzaren 3an

ESKER ONAK

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiot nire familiari, nire guraso eta anaiari, eta batez ere, Joni, hain gogorra izan den urte honetan zehar nire ondoan egoteagatik.

Blanca, Maialen, Maddi, Ane eta Juleneri baita ere, azken lau urteotan eskainitako laguntza eta une ahaztezinengatik.

Aipamen berezia egin beharra daukat, Gradu Amaierako Lan honen tutoreari, hain zuzen ere, Jagobari, eskainitako denbora eta emandako aholkuengatik.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet erizain ona izateko behar diren ezagutzak eta trebetasunak irakatsi dizkidaten irakasle eta gainerako osasun profesionalei.

AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA	4
HELBURUA.....	9
METODOLOGIA.....	10
Diseinu mota	10
Bilaketa estrategia.....	10
Barneratze irizpideak.....	10
Kanporatze irizpideak.....	11
Artikuluen aukeraketa.....	12
Artikuluen aztertzea.....	12
Artikuluen analisia.....	13
EMAITZAK ETA EZTABAIDA.....	14
Artikuluen ezaugarriak	14
Interbentzio dietetikoak.....	14
Gaixotasunaren igorpen egoerari eutsi.....	15
Gaixotasunaren jarduera-maila murriztu.....	16
Hesteetako mukosaren hantura eta sintomatologia arindu.....	18
Bizi-kalitatea	20
LIMITAZIOAK	22
ONDORIOAK	23
BIBLIOGRAFIA.....	25
ERANSKINAK.....	29
1. Eranskina. Crohn-en gaixotasunaren digestio-aparatuaren barne eta kanpoko adierazpen klinikoak.	29
2. Eranskina. Crohn-en gaixotasunaren Montreal sailkapena	30
3. Eranskina. Kontzeptu-taula	31
4. Eranskina. Bilaketa-taula.....	33
5. Eranskina. Fluxu-diagrama	42
6. Eranskina. Ikerketa kuantitatiboko azterketaren irakurketa kritikoa	43
6.1. Eranskina. Ikerketa kuantitatiboko azterketaren irakurketa kritikoa.....	43
6.2. Eranskina. Ikerketa kuantitatiboko azterketaren irakurketa kritikoa.....	48
7. Eranskina. Laburpen-taula.....	53
8. Eranskina. Zuhaitz kategoriala	59
9. Eranskina. Crohn-en gaixotasunaren igorpen faserako esku-hartze dietetikoaren taula.....	60
10. Eranskina. Crohn's disease Activity Index (CDAI).....	63
11. Eranskina. Harvey-Bradshaw Index (HBI).....	65
12. Eranskina. Irritable bowel syndrome severity scoring system (IBS-SSS).....	66

13. Eranskina. Gastrointestinal symptoms rating scale (GSRS).....	67
14. Eranskina. Inflammatory Bowel Disease Questionnaire (IBDQ)	69

SARRERA

Marko teorikoa eta justifikazioa: Crohn-en gaixotasuna traktu gastrointestinalerako edozein zatiko mukosaren hantura kroniko eta birsortzailea eragin dezakeen hesteetako hanturazko gaixotasuna da. Sintoma nagusien artean pisua galera, sabeleko mina, distentsio abdominala eta beheakoa aurkitzen dira, hauek eguneroko jardueran eta hortaz, gizabanakoen bizi-kalitatean eragin kaltegarria dutelarik. Etiologia ezezaguna izan arren, aipatu beharra dago zenbait ikerketa-ildok, dietak gaixotasunaren agerraldian duen eragina adierazi dutela. Ondorioz, gaixotasunaren izaera kronikoa eta intzidentzia handituz doala ikusita, garrantzitsua izango da erizainen ikuspeirik gaixotasunaren igorpen-fasearen maneiu dietetiko egoki bat egiten jakitea, paziente hauen eguneroko zainketaz arduratzen den profesionala baita, alor anitzeko arreta eskainiz.

Helburua: Esku-hartze dietetiko ezberdinen eraginkortasuna aztertu Crohn-en gaixotasunaren igorpen fasean dauden paziente helduengan, igorpen egoera mantendu, gaixotasunaren jarduera-maila murriztu, hesteetako mukosaren hantura eta sintomatologia arindu eta bizi-kalitatea hobetzeko.

Metodologia: 2010-2021 urte bitartean argitaratutako ikerketak erabili dira literaturaren berrikusketan bibliografikoa burutzeko. Honetarako hurrengo datu baseetan burutu dira bilaketak: Medline (Ovid), Embase, Cochrane eta Cinahl. Horrez gain, eskuzko bilaketak burutu dira “Enfermería clínica” eta “Journal of gastrointestinal nursing” aldizkarietan eta RNAO eta NICE praktika klinikorako gidetan.

Emaitzak eta eztabaida: Lortutako 15 artikuluen bidez FODMAP baxuko dieta, baztertze-dietak (IgG4k gidatutako baztertze-dieta, karbohidrato espezifikoen dieta, haragi gorri eta prozesatuen baztertze-dieta), dieta antiinflamatorioa, dieta mediterranea, zuntza eta N-3 gantz poli asegabearen inguruko esku-hartze dietetikoak aztertu dira. Crohn-en gaixotasunaren igorpen egoerari eusteko N-3 gantz-azido poli asegabearen erabileran oinarritutako esku-hartze dietetikoak mesedegarria dela esan daitekeen arren, gainontzeko esku-hartze dietetikoak ikertu dituzten azterlanen iraupen laburrek, igorpenari eusteko duten eraginkortasuna aztertzea ekidin dute. Dena den, aztertutako esku-hartze dietetikoak gaixotasunaren jarduera-maila edo sintomatologiaren maneian lagungarriak gauzatu daitezkeela ikusi da, aurreko hauen eta bizi-kalitatearen hobekuntzaren arteko korrelazioaz jabetuz.

Ondorioak: Eskuratutako ebidentzia mugatua izan arren, aztertutako esku-hartze dietetikoek Crohn-en gaixotasunaren igorpenaren tratamendurako eraginkortasun terapeutikoa dutela erakutsi dute. Hala ere, ikerketa gehiagoren beharra dago, lagin handiagoetan esku-hartze dietetiko ezberdinen epe-luzerako eraginkortasuna aztertuz, bai eta, erizainek gaixotasun honen aholkularitza dietetikoaren arloan burutzen duten esku-hartzeari beharrezkoa den ikusgarritasuna emanez.

Hitz gakoak: Crohn-en gaixotasuna, Igorpen fasea, Dieta, Heldua, Erizaintza zainketak.

ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Crohn-en gaixotasuna (CG) traktu gastrointestinalerako mukosaren hantura kroniko eta birsortzailea ezaugarri nagusizat duen hesteetako hanturazko gaixotasuna (HHG) da. CG duten pertsonak digestio-hodiaren edozein zatitako mukosaren hantura jasan dezakete, ahotik uzkiraino, honek, erasandako zatiaren geruza guztien kaltea eta funtzionamenduaren asaldatzea gauzatzeko gaitasuna duelarik ⁽¹⁾.

CG gaixotasun idiopatikoa bada ere, gaur egunera arte eskuragarri dagoen ebidentziak hesteetako mikrobiotak gaixotasunaren etiologian zeregin garrantzitsua duela adierazten du, CGren agerraldia, aldeztatik genetikoki baldintzatuta dagoen eta zenbait ingurumen-faktoreen eraginpean dagoen gizabanakoaren hesteetako mukosaren immunitate-sistemaren homeostasian emandako alterazio baten ondorio dela azalduz ^(2, 3).

Gaixotasun honen agerraldia eragin dezaketen ingurumen-faktoreak aztertzean, zenbait ikerketak ondorioztatu zuten, tabakoaren kontsumoarekin batera, higiene goi-mailak eta antibiotikoen gehiegizko erabilera oinarri immunologikoa duen gaixotasun honen pizgarri izan daitezkeela. Bestalde, gaixotasunaren agerpenari dagokionez, zenbait ikerketa-ildoren arabera, zuntz gutxiko dietak eta koipe poli-aseen eta haragi gorriaren irenste masiboak CGren agerpenean lagungarria suerta daitezke. Azkenik, faktore genetikoa aztertzean, CG duten pertsonak genetikoki joera handiagoa dutela onartu arren, geroz eta adostasun handiagoa dago adituen artean, hau herentziaz igortzen ez den gaixotasuna dela adieraziz ⁽⁴⁾.

Kontuan hartuta HHGren intzidentzia aldakorra dela munduan zehar, aipatzekoa da prebalentzia-eta intzidentzia-tasa handienak Mendebaldeko Europan eta Ipar Amerikan daudela, Asiako, Latinoamerikako eta Ekialdeko Europako herrialdeek tasa baxuenak dituztelarik. 2011tik gaur arte, biztanleria handiena duten Europako bost herrialdeetan (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia eta Espainia), Estatu Batuetan eta Japonian HHGren prebalentzia %2,8 handitu da, eta oraindik ere gora egiten jarraituko duela uste da. Espainia mailan, HHGren prebalentzia tasa 100.000 biztanleko 181,4koa da, eta hauetatik %42 CGri dagokio ⁽⁴⁾; intzidentziari erreparatzen badiogu, urtero, 100.000 biztanleko 6 eta 9 bitarte CG kasu berri diagnostikatzen dira ⁽⁵⁾.

Gizabanakoen etniarekin lotutako ezberdintasunik ematen bada ere, CGk lotura handiagoa du bizi-estiloarekin etniarekin baino. Hain zuzen ere, intzidentzia tasa handiagoak agertzen dira hiriko zonaldean landa-eremuan baino, klase sozioekonomiko altuetan prebalentziak gora eginez. Beraz, oinarri immunologikoa duten beste gaixotasun batzuek bezala, CGren eragina herrialdeen garapen sozioekonomikoarekin eta osasun-sistemarekin lotuta dago, batez ere herrialde garatuetan agertzen den gaixotasuna baita ⁽⁴⁾.

CGren agerpena nerabezaro eta helduaroaren hasieran eman ohi da, 15 eta 35 urte bitartean, zenbait ikerketak bigarren diagnostiko piko bat aurkitu dutelarik 60 urte inguruko helduetan. Gaixotasunak antzeko eragina du bi sexuetan; honen arabera prebalentzia aldean inguruan

argitaratutako azterlanek erakutsi dute emakume eta gizonezkoen artean alde argirik ez dela aurkeztzen ^(2, 5).

Aipatutako CGren intzidentzia eta prebalentzia eta prebalentziaren handitze progresiboak zeharo eragiten du ekonomian, osasun kostuaren igoera ekarriz. Hain zuzen ere, Espainia mailan, gutxi gorabehera, 1.083 milioi euroko gastu ekonomikoa suposatzen du urtero, hau da, Espainiako gastu publikoaren %1,8 ⁽⁴⁾. Egindako kalkuluaren arabera, CG duen pertsona batek 7.756 euro gastatzen ditu urtero osasun-laguntza gisa, honela banatuta: %58,1 CGri lotutako kostuak, %33 tratamendu farmakologikoari dagokio eta gainerako %10 kontsulta, proba eta ebakuntzei dagozkien ⁽⁶⁾.

CGren patologiaren bereizgarri nagusia, hanturazko zelulen aktibazioaren ondorioz traktu gastrointestinalerako edozein zatitan eman daitekeen hantura granulomatoso eta transmurala da. Gaixotasun honen hedapena era aldakorrean gertatzen da, "lesio saltoak" deiturikoak sortuz digestio-hodiaren gune bakar batean edo gehiagotan (1, 3). CGren eragin nagusia hestean izan ohi da, hau pairatzen duten pertsonengan ileo eta kolonean (%35), kolonean bakarrik (%32), heste mehean bakarrik (%28) edota eskualde gastroduodenalean (%5) kaltea eraginez ⁽⁷⁾.

Gaixotasun honen bilakaera, noiz eta nola azalera tuko diren aurreikusi ezin den agerraldietan bereizten da, alde batetik, intentsitate eta iraupen aldakorra izan dezaketen agerraldi sintomatikoak izanik, eta bestetik, hilabete edota urteak iraun dezakeen gaixotasunaren igorpena aurkituz ^(8, 9).

CGk eragin sistemikoa izan dezake, adierazpen klinikoak digestio aparatuen barnean edota kanpoan agertuz (1. Eranskina). Sintoma digestiboak aurkezteko modua zeharo aldakorra da, gaixotasunaren kokapenaren, hedaduraren, jardura mailaren eta patriaren arabera aldatzen baita; sintoma nagusien artean, pisuaren galera, sabeleko min errepikaria, distentsio abdominala eta beherakoa dira aipagarrienak. Aipatutako adierazpen klinikoak gaixotasunaren fase aktiboaren bereizgarriak izan arren, ez dira honetara mugatzen; iraupen luzeko igorpenean aurkitzen diren CG duten pertsonen %57k sabeleko mina, distentsio abdominala, flatulentzia eta beherakoa bezalako sintoma funtzionalak izana aitortzen du ⁽¹⁰⁾. Digestio-aparatuen barnean izan daitezkeen konplikazio nagusien artean heste-buxadura, fistula eta abzesu abdominalen eraketa nabarmentzen dira ⁽¹⁾.

Aipatutako konplikazioez gain, berrikusitako literaturak CG duten pertsonen malnutrizio prebalentzia handia deskribatzen duen arren, datu hauek, gehienbat, gaixotasuna aktibo duten pertsonetan oinarrituta daude ⁽¹⁰⁾. Gaixotasun honen inguruko azterketa gehienek malnutrizio prebalentzia oso handia adierazteko arrazoi nagusia, oro har, ospitaleratutako pazienteak zein paziente ambulatorioak barne hartzea da, emaitza gaixotasunaren jardura mailaren arabera ez baita bereizten ⁽⁹⁾.

European's Crohn's and Colitis Organisation (ECCO) erakundearen aburuz, Montreal sailkapen sistemaren (2. Eranskina) bidezko CGren sailkapena burutzea ezinbesteko urratsa da, honek

gaixotasunaren ezaugarri eta portaera aldeak ezagutzea ahalbidetzen baitu, pazientearen ebaluaketa burutzeko eta tratamenduaren inguruko erabakia hartzeko lagungarria izanik ⁽⁸⁾.

Gaixotasun honen jarduera maila adierazpen objektibo eta subjektiboak aztertuz neur daiteke, Crohn-en gaixotasunaren aktibitate indize (Crohn's Disease Activity Index, CDAI) eta Harvey-Bradshaw-ren indize (Harvey-Bradshaw Index, HBI) klinikoen bidez edota laborategiko datuak aztertuz, hala nola, PCR serikoa eta kalproteina fekala ^(2, 11). CGk gizabanakoen bizi kalitatean izan dezakeen eragin kaltegarriaz jabetzeko, osasunarekin lotutako bizi-kalitatea aztertzea ahalbidetzen duen galdetegi erabilienean artean "Inflammatory Bowel Disease Questionnaire" (IBDQ) galdetegia edo horren bertsio laburtua (SIBDQ) aipatu behar dira ⁽¹²⁾.

CGren izaera kronikoak hau pairatzen duten pertsonen bizitza osorako zainketak behar izatea eragiten du, gaixotasunak erasandako gunearen, hedaduraren, gaixotasunaren jarduera eta intentsitatearen, agertzen diren konplikazioen, osasun egoera orokorraren eta abarren arabera. ⁽¹⁾.

Eskuragarri dauden tratamendu mediko, kirurgiko eta nutrizionalen helburu nagusia gaixotasun-prozesua eta haren konplikazioak tratatzea bada ere, ez da bakarra; halaber, igorpen-egoera lortzea edo mantentzea, hesteetako mukosa sendatzea, elikadura egokia izatea, konplikazioen agerpena zaintzea eta bizi-kalitatea hobetzea bilatzen da ^(1, 7).

Tratamendu kirurgikoaren erabilera gaixotasunaren konplikazio akutuetara bideratuta dagoela, eta tratamendu medikoaren luzaroko erabileraren eraginkortasun urria eta hauen albo-ondorio anitzak ekartzen dituela kontuan hartuta, egoera honen aurrean, egileak bat datoz CGren tratamendu-aukera berriak ikertzeko dagoen premian ^(1, 4).

Azpimarratu beharra dago CGk gizabanakoen alderdi biopsikosozialean duen eragina; izan ere, honen diagnostiko-adin goiztiarrak, izaera kronikoak, klinikak, konplikazioek, bisita mediko eta ospitaleratzeek, tratamendu medikoaren eta kirurgiaren albo-ondorioek zeharo eragiten baitute bizitza pertsonalean, lanean, gizartean eta familian, ondorioz, hauen garapen pertsonal eta bizi-kalitatean eragin galanta izanik ^(4, 13).

Gaixotasunaren bereizgarri diren adierazpen klinikoek erabat mugatzen dute CG duten pertsonen eguneroko bizitza, gehienetan, biztanleria orokorrarekin alderatuta sare sozial txikia izatera baldintzatuz, familia babes nagusia delarik kasu gehienetan ⁽¹⁴⁾.

CG duten pertsonen bizi-kalitatean eragin nabarmena izan dezaketen faktore nagusiak jorratzean, dietak paper garrantzitsua duela ikusi da. Azterlan ezberdinek adierazi zutenean oinarrituta, CG zuten gizabanako gehienentzat, dieta eta elikadura-ohiturak igorpen-egoera mantentzeko edota agerraldiaren berezko sintomatologia murrizteko kontuan hartu beharreko aldagaiak dira ^(15, 16).

Hortaz, interesgarria izango litzateke tratamendu mediko eta kirurgikoen erabilerarekin batera, terapia nutrizionalaren erabilera ezartzea, esku-hartze dietetiko ezberdinen bitartez CG duten

gizabanakoen bilakaera hobetzeko helburuari jarraituz, paziente zein osasun-sistemarentzat onura kliniko eta ekonomiko handiak ekartzeko helburuarekin ⁽⁶⁾.

Dieta CG pairatzen duten pertsona askoren kezka izan arren, gaixotasunaren maneiu dietetikoaren inguruan jarraibide dietetiko eta adosturik ez egoteak, orokorrean, CG duten pertsonak, entseguz eta akatsez, beren tolerantziei eta intolerantziei buruz ikastera bultzatzen ditu, osasun-profesional baten gidaritzapean ikasi beharrean. Honek, zenbaitetan, gizabanako hauen artean gaixotasunaren bilakaeran kaltegarriak gerta daitezkeen elikadura-ohitura desberdinak sortaraztea ekartzen du, osasun-egoera orokorra okertzeko, alboko patologia sustatzeko eta, ondorioz, bizi-kalitateak okerrera egiteko arriskua handituz ^(15, 16).

CG igorpen fasean aurkitzen diren gizabanakoen maneiu dietetikoan zentratuz, gaixotasunaren jarduera-mailaren arabeko elikadura-jarraibide egokiak bermatzea funtsezko alderdia izango da aipatutako igorpen-egoerari eusteko. Oro har, dieta orekatua, energian eta proteinetan nahikoa, eramatea gomendatzen da, gabezia-egoerak saihesteko. Pazientearekin aholkularitza dietetikoa aurrera eramaterakoan, kontuan hartu beharreko alderdia da dietak pertsonalizatua izan beharko duela, pertsona bakoitzak dituen sintomen eta elikagai jakin batzuei ager dakizkiekeen intolerantzien araberakoa, hain zuzen ere ⁽¹⁷⁾.

CG duten pertsonen autogestio dietetikoaren funtsezko zatitzat aholkularitza dietetiko egokia eskuratzea jotzen den arren ⁽¹⁶⁾, Tinsley A et al-ek burututako ikerketan, erizaintzako profesionalek aitortu zuten, batetik, CGrekin lotutako maneiu dietetikoaren inguruko ezagutza urriak eta, bestetik, elikadurari buruzko eztabaidak hasten eta bideratzen laguntzeko argitaratutako adostasun-adierazpenen gabeziak, CG zuten pazienteekin elikaduraz hitz egitea oztopatu egiten zuela, askok arazoren bat sumatuz gero edo pazienteak berak eskatuz gero bakarrik egiten dutelarik ⁽¹⁸⁾.

Arabako Erakunde Sanitario Integratuan (ESI), Intraneteko osasun-profesionalentzat eta erabiltzaileentzat eskuragarri dauden hezkuntza-edukietara mugatzen bagara, maneiu dietetikoaren inguruko edukia, oso laburra izateaz gain, HHGk biltzen dituen gomendio dietetiko orokorretara murrizten da ⁽¹⁹⁾.

Erizainek gero eta funtzio garrantzitsuagoa dute CG duen pazientearen tratamenduan zehar, gainontzeko osasun-arloko profesionalek baino harreman jarrai eta estuagoa izan ohi baitute pazientearekin. Gaixotasun honen izaera klonikoak bizitza osorako osasun profesionalen arreta eta autozainketa beharra areagotzen duela kontuan izanda, erizainak nahitaezko papera izango du paziente hauen arretan, gaixotasuna aurrera joan ahala garatzen diren beharrei erantzuteko ardura izanik ⁽²⁰⁾. Beraz, gaixotasunaren bilakaeran dietak eginkizun garrantzitsua duela kontuan izanik, erizainak pazientearen egoera orokorra eta premiak kontuan hartuta, aholkularitza dietetiko egokia burutzeko eginkizuna izango du ⁽²¹⁾.

Dietak CG duten pazienteen bizitzan duen eragina ikusita, ezinbestekotzat jotzen da erizainek, gehienbat lehen mailako arretako eta kanpoko kontsultetako erizainek, esku-hartze dietetiko nagusiak ezagutzea, etorkizunean ebidentzia zientifikoan oinarritutako zainketak praktikara

eraman ahal izateko, aholkularitza dietetikoaren bitartez, pazientearen parte-hartzea sustatuz, honen osasun egoera fisiko zein psikologikoan eragin positiboa izateko asmoz ⁽²¹⁾.

HELBURUA

Esku-hartze dietetiko ezberdinen eraginkortasuna aztertu Crohn-en gaixotasunaren igorpen fasean dauden gizabanako helduengan, igorpen egoera mantendu, gaixotasunaren jardueramaila murriztu, hesteetako mukosaren hantura eta sintomatologia arindu eta bizi-kalitatea hobetzeko.

METODOLOGIA

Diseinu mota

Aurrez aurkeztutako helburuari erantzuna emateko, literaturaren berrikuspen hau ahalmen-berrikuspenetarako gidaren ⁽²²⁾ eta Preferred Reporting Items for Systematic Reviews and Meta-Analyses (PRISMA) ⁽²³⁾ txostenak aurkezteko jarraibideen arabera garatu zen.

Bilaketa estrategia

Artikuluak bilatzeko aurrera eramandako estrategia, datu-base, aldizkari eta praktika klinikorako gida ezberdinetan bilaketak burutzea izan zen.

Erabilitako datu-baseen artean, Medline (Ovid), Embase eta Cinahl aurkitzen dira. Datu-base hauek erabili izateko arrazoi nagusia, osasun zientziei buruzko informazio fidagarria eta ebidentzian oinarritutako hainbat artikulu eskaintzen zituztela izan zen. Horrez gain, Cochrane argitalpen elektronikoan burutu ziren beste hainbat bilaketa, errebisio sistematikoak eta ausazko entsegu klinikoak topatzeko asmoarekin.

Datu-baseetan bilaketak burutzeaz gain, eskuzko bilaketak burutu ziren erizaintza arloko “Enfermería clínica” eta “Journal of gastrointestinal nursing” aldizkarietan. Azkenik, RNAO eta NICE praktika klinikoko gidetan egin ziren bilaketak, hauetan, pazientearen osasun-arreta hobetzeko helburuarekin, ebidentzia zientifikoan oinarritutako gomendioak eskaintzen baitziren.

Behin berrikuspenaren helburua zehaztuta izanda, hau hitz gakoetan deskonposatu zen: “Crohn-en gaixotasuna”, “Igorpen fasea”, “Dieta”, “Heldua” eta “Erizaintza zainketak”. Jarraian, aipatutako hitz gakoen sinonimo eta antonimoak zerrendatu ziren euskaraz eta ingelesez. Halaber, datu-base desberdinetan bilaketak egiterakoan, deskriptore desberdinak erabili ziren datu-basearen arabera (MeSH, Thesaurus, Cinahl-eko deskriptoreak edo hitz gakoak). (3. Eranskina).

Behin kontzeptu nagusietako datu-base bakoitzeko hitz gakoak lorturik, bilaketa-ekuazio ezberdinak eraiki ziren AND eta OR operadore booleanoen bitartez (4. Eranskina). Aldi berean, aurkitutako artikuluen bibliografia gainbegiratu zen artikuluak eskuratzeko helburuarekin.

Bilaketa-prozesua hasteko orduan, zenbait barneratze- eta kanporatze-irizpide zehaztu ziren, aipatutako informazio iturrietan burututako bilaketen bidez eskuratutako artikuluetatik, zehaztutako helburu zehatzarekin bat datozenak identifikatu ahal izateko.

Barneratze irizpideak

Argitalpen mota

Lanaren helburuari erantzuteko, artikulu kuantitatiboak barneratu ziren, esku-hartze dietetiko ezberdinen erabilgarritasuna, egokitasuna eta eraginkortasuna aztertzei aukeratu; hala nola, ikerketa-lan esperimentalak edo saiakuntza kliniko kontrolatu eta ausazkotuak, pre-esperimentalak, sasi-esperimentalak edota diseinu deskriptiboa zuten ikerlanak barneratu ziren.

Argitalpen hizkuntza

Bilaketa gaztelaniaz eta ingelesez argitaratutako artikuluetara mugatu zen, hauek baitira menperatzen ditudan hizkuntzak.

Argitalpen data

Bilaketen bitartez lortutako artikuluen kopurua murrizteko eta, aldi berean, informazio zabala eta eguneratua aurkitzeko asmoarekin, 2010 eta 2021 bitartean argitaratutako artikulua ikertu ziren.

Parte-hartzaileak

Bilaketa CGren diagnostikoa zuten eta gaixotasunaren igorpen-fasean aurkitzen ziren (CDAI edo HBIren arabera) gizabanako helduetara mugatu zen, hau da, 18 urtetik gorako pertsonetara, CGren kasu gehienak helduaroan diagnostikatzen baitira.

Sexuari eta arrazari zegokienez, ez zen irizpiderik zehaztu gaur egunera arte eskuragarri dagoen ebidentziak ez baitu hauen inguruko ezberdintasun argirik aurkeztu.

Ikertutako herrialdea

Mundu osoan agertzen den gaitza izan arren, Europan eta Ipar Amerikan gauzatutako ikerketei eman zitzaien lehentasuna, intzidentzia- eta prebalentzia-datu altuenak aurkezten baitituzte. Japonian azkenaldian ematen ari den prebalentziaren igoera dela-eta, herrialde honetan argitaratutako artikulua sartu ziren.

Helburua:

Helburuari erantzuten zioten artikulua hartu ziren kontuan; hau da, CGren igorpen-fasea mantentzeko eskuragarri zeuden esku-hartze dietetikoaren inguruko informazioa aurkezten zuten ikerketak, honen eraginkortasuna bermatuz. Hala ere, fase aktiboa eta igorpen-fasea ikerketa berean jasotzen zituzten argitalpenak hartu ziren kontuan.

[Kanporatze irizpideak](#)

Argitalpen mota

Hirugarren mailako iturrietatik lortutako informazioa ebidentzia-maila baxua dela bide deuseztatu egin zen, hau da, protokoloak eta oinarri zientifiko urriko gidak, literatura grisa, konferentzia-aktak, editorialak eta abar.

Argitalpen data

2010 urte aurretik argitaratutako artikulua ez ziren hartu barne bibliografian.

Argitalpen hizkuntza

Ingelesa edo gaztelania ez den beste hizkuntza batean argitaratutako artikulua baztertu egin ziren, gainontzeko hizkuntzen ulermen-maila urria dela eta.

Parte-hartzaileak

CG diagnostikorik ez zuten gizabanakoak edota fase aktiboan bakarrik aurkitzen ziren gizabanakoak barne hartzen zituzten artikulua baztertu egin ziren. Bestalde, adingabeen beharren heterogeneotasuna dela eta, adin-tarte hau (<18 urte) ikertzen zuten artikulua kanporatu egin ziren.

Herrialdea

CGren intzidentzia eta prebalentzia munduan zehar aldakorra den arren, herrialdeen garapen sozioekonomikoarekin eta osasun-sistemarekin lotuta dagoenez, herrialde garatuetan batez ere ematen den gaixotasuna izanik, maila sozioekonomiko eta osasun-sistema azpigaratua duten herrialdeetan jatorria zuten argitalpenak baztertu egin ziren.

Helburua

CGren igorpen-fasea mantentzeko esku-hartze dietetikoak ez ziren bestelakoak (tratamendu kirurgiko eta medikoa) ikertzen zituzten argitalpenak kanporatu egin ziren.

Eskuragarritasuna

Artikuluen full text-a lortzea ezinezkoa zen kasuetan, hauek kanporatuak izan ziren.

Artikuluen aukeraketa

Datu-baseetan bilaketa ekuazio ezberdinekin saiatu eta agertutako artikuluen aukeraketa burutu zen. Horretarako, lehendabizi, barneratze- eta kanporatze-irizpideetan ezarritako urte tartearen iragazkia gehitu zitzaizen bilaketa-ekuazio guztiei, 2010-2021 bitarteko artikuluetara mugatuz bilaketa. Ondoren, datu-baseetan egindako bilaketa guztietatik eratorritako artikulua biltzeko helburuarekin Mendeley aplikazioa erabili zen, errepikatutako artikulua kanporatzearen bitartez emaitza kopurua murriztu, eta hautagarriak izan zitezkeen artikuluen zerrenda burutuz.

Ondoren, izenburuak irakurri ziren, gaiarekin bat ez zetozen artikulua baztertu. Hurrengo pausoa, laburpenen irakurketa burutzea izan zen, helburuarekin bat ez zetozen edo barneratze-irizpideak betetzen ez zituzten artikulua zerrendatik kanporatu. Behin horiek irakurrita, barneratze-irizpideak betetzen ez zituzten artikulua kanporatuak izan ziren, datu-baseen bidez eskuratutako artikuluen kopurua mugatuz. Geroago, barneratze-irizpideak betetzen zituzten artikuluen "full text"ak eskuratu saiatu nintzen, lortutakoen testu osoa irakurri (5. Eranskina).

Artikuluen aztertzea

Lortutako artikuluen kalitate metodologikoa ebaluatzeko, banan-banan irakurri eta ikerketa kuantitatiboko azterketaren irakurketa kritikorako gidoia jarraitu zen artikulua bakoitzarekin (6. Eranskina).

Ondoren, errebisio-lanean erabiltzeko aukeratutako 15 artikulua sakonki irakurri ostean, banan-banan irudikatu ziren taula batean, bakoitzaren xehetasun eta emaitza aipagarriak aurkeztuz (7. Eranskina).

Artikuluaren analisia

Aurretik egindako laburpen-taulan oinarritutako sintesi narratibo bat egin zen, berrikuspen honetako ikerketetan aztertutako aldagaien ereduak, antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz, lortutako datuak sailkatu egin ziren, zuhaitz kategorial bat osatuz (8. Eranskina).

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

CG pairatzen duten gizabanako helduen beharrei erantzuteko, eta gaixotasun honen igorpen-fasearen maneiua dietetiko aproposa eraman ahal izateko, esku-hartze dietetiko eraginkorrenei buruzko ikerketen emaitzak landu ziren.

Artikuluaren ezaugarriak


Lan honen emaitzak idazteko, ezarritako helburuari erantzuten zioten hamabost artikulu erabili ziren. Errebisio-lan honetan sartutako diseinuei erreparatu, sei ausazko entsegu kliniko, bi ikerketa pre-esperimental, bi ikerketa sasi-esperimental, lau ikerketa deskriptibo eta errebisio sistematiko bat aukeratu ziren. Gehienbat herrialde garatuetan ematen den gaixotasuna denez, Erresuma Batuan, Danimarkan, Italian, Grezian, Japonian eta Ipar Ameriketako Estatu Batuetan jatorria zuten artikuluak erabili ziren.

Aukeratutako azterlanek, CG igorpen-egoeran zuten gizabanakoetan, esku-hartze dietetiko ezberdinek zuten eraginkortasuna aztertzea zuten helburu gisa; oro har, esku-hartzea gizabanakoaren ahoratzea modu kontrolatua manipulatzeari oinarritu zen, denbora-tarte jakin batean elikagai-kontsumoa nahita aldatuz (hau da, ikerketa hauetan ez da formula edo gehigarriak aztertu).

Ikerketek, oro har gaixotasunaren igorpenaren mantentzea ebaluatzeko, alde aurretik zehaztutako denbora-tarte finkoetan (adibidez, 4 aste, 6 hilabete) oinarritu ziren, denbora aldakorren ekarpen gisa (esaterako, pertsona-urteak).

Berrikusketak aurrera eramateko aukeratutako hamabost azterlanen laginak alderatu ziren. Guztira CG zuten 3121 gizabanako aztertu ziren, laginen tamaina 7tik 1130ra bitartekoa zelarik. Artikulu guztiek, CGren diagnostikoa zuten pertsona helduak (18 urtetik gorakoak) aztertzen zituzten arren, zenbaitek ultzeradun kolitisa (UK) edo zehaztugabeko kolitisa (ZK) ikertzen zuten aldi berean. Gaixotasunaren jardueramailari dagokionez, aztertutako artikulek oro har CG igorpenean zuten gizabanakoak aztertzen zituzten, zenbaitek azterlan berean gaixotasun aktiboa zuten partaideak barneratu.

1. diagrama. Artikuluaren laginen tamainaren arabera banaketa ehunekoetan (Amunarriz eginda)



Interbentzio dietetikoak

Berrikuspen lan honetan, FODMAP baxuko dieta, bazterketa dietak (IgG4k gidatutako dieta, karbohidrato espezifikoaren dieta, haragi gorri eta prozesatuen baztertze dieta), dieta antiinflamatorioa eta dieta mediterranea aztertu ziren; nahiz eta ebidentzia oraindik mugatua

izan, badirudi potentzial terapeutiko handiena dutenak direla. Orobat, aipatutako esku-hartze dietetikoak aztertzeaz gain, CG igorpen-fasean duten pertsonengan nolabaiteko gaitasun terapeutikoa izan dezaketen zenbait mantenugai aztertu ziren, besteak beste, zuntza eta n-3 gantz-azido poli asegabeak nabarmenduz (9. Eranskina).

Aipatutako esku-hartze dietetikoek CG zuten gizabanakoen igorpen klinikoaren egoerari eusteko, gaixotasunaren jarduera maila murrizteko, hesteetako mukosaren hantura eta sintomatologia arintzeko eta osasunarekin lotutako bizi kalitatearen gain eragiten dituzten onurak baieztatzeko helburuarekin eraman zen aurrera hurrengo berrikusketa-lana.

Gaixotasunaren igorpen egoerari eutsi

Aipatutako esku-hartze dietetiko ezberdinek CGren igorpenari eusteko duten eraginkortasuna neurtzeko, honela definitu zuten birgaitze kliniko: igorpen klinikotik gaixotasun aktiborako trantsizioa, sintomen puntuazioan oinarrituta.

Albenberg L et al-ek ⁽²⁴⁾ burututako itsu bikoitzeko entsegu kliniko haragi gorri eta prozesatuaren kontsumo baxuaren eta CGren agerraldi sintomatikoa izateko arriskuaren arteko erlazioa zehazten saiatu zen. Honetarako, CG igorpen-egoeran zuten 202 gizabanako aztertu ziren, ausaz bi taldetan banatuz, hurrengo 49 asteetan zehar bete beharko zituzten jarraibide dietetiko ezberdinak emanez bakoitzari. Esku-hartze taldeko 115 gizabanakoek ezin zuten haragi gorri eta prozesatuaren anoa bat baino gehiago kontsumitu hileko, kontrol taldeko 87 partaideek, berriz, hilean behin gutxienez bi anoa jan behar zituztelarik; bi taldeetakoek gutxienez 0.5 litro ur edan behar zuten egunean. Ikerketan zehar, bi taldeetako parte-hartzaileen %62k agerraldi sintomatikoa izan zuen; esku-hartze taldekoek agerraldia izan arteko denbora tarte kontrol taldekoa baino luzeagoa izan arren, ez zen alde esanguratsurik nabarmendu bi taldeen emaitzak alderatzean ($p = 0.43$). Hortaz, ikerketaren emaitzetan oinarrituta, haragi gorri eta prozesatuaren kontsumoa murrizteak CG igorpenean zuten gizabanakoek agerraldi sintomatikoa pairatzeko arriskua murrizten zuela ondorioztatzea ezinezkoa gauzatu zen.

Bestalde, Kakodkar S et al-ek ⁽²⁵⁾ burututako ikerketa deskriptiboak, HHG igorpen fasean zuten 50 gizabanako barneratu zituen, hauetatik hogeita hamasei CG zutelarik, karbohidrato espezifikoen dietak (KED) gaixotasunaren bilakaeran zuen eragina aztertuz. Partaideek batz bestea 35.4 hilabeteetan zehar (tarte= 1-216 hilabete) KED jarraitu ostean, igorpen-faseari eusteko zuen eraginkortasuna adierazi zuten eskala analogiko baten bitartez, emaitzen batez bestekoa %92,1 (tarte= %53-%100) izanik; hortaz, partaideen pertzepzioan oinarrituta adierazitako emaitzek, aztertutako dieta igorpenari eusteko mesedegarria zela ondorioztatzea baimendu zuten.

Halaber, baliteke dietan kontsumitutako gantz-azido motak garrantzitsuak izatea HHG dutenen kasu igorpen faseari eusteko. N-3 gantz-azido poli asegabeak (N-3 PUFA) HHGn, hesteetako mukosaren hantura modulatzeko eta erantzun terapeutikoa hobetzeko garrantzitsutzat jo arren,

Cochranen 2014an argitaratutako errebisio sistematikoak ez zuen argi erakutsi hauen eraginkortasuna ⁽²⁷⁾.

Alabaina, Uchiyama K et al-ek ⁽²⁸⁾ aurrera eramandako ikerketa sasi-esperimentalak, n-3 PUFA HHG igorpen faseari eusteko zuten gaitasuna aztertu zuen 230 gizabanakotan (62 CG, 168 UK). Bertan, n-3 PUFA janari-taula baten erabileran oinarritzen zen terapia dietetiko bat ezarri zen dietaren n-3/n-6 ratioa ia batekoa izatea lortuz; honetarako, n-6 PUFA ahoratzea batez besteko ahorakinaren %50era mugatu zen partaideei honen iturri nagusien kontsumoa debekatzuz, bestetik, n-3 PUFA ahoratzea handitu zelarik. Esku-hartzea hasi eta 12-18 hilabete bitarteko jarraipena burutu ostean, CG zuten partaideen %79k (62 partaideetatik, 49 gizabanako) eutsi zion igorpen-faseari. Igorpenean zeuden partaideen taldean batez besteko n-3/n-6 erlazioak nabarmen altuagoak izan ziren agerraldia jasan zuten gizabanakoen taldean baino ($p < 0,01$). Adierazitako emaitzetan oinarrituta, n-3/n-6 proportzioak CG igorpenean duten gizabanakoen gaixotasunaren jardueran eragin nabarmena izan dezakeela ondoriozta daiteke, n-3/n-6 erlazio altuagoak igorpenari eusteko mesedegarriak gauzatuz.

Azkenik, Brotherton C et al-ek ⁽²⁶⁾ egindako azterlan deskriptiboan, zuntz-kontsumoaren eta agerraldi bat izateko arriskuaren arteko erlazioa aztertu zen HHG zuten 1619 partaideengan, horietatik 1130 gizabanakok CG igorpenean zutelarik. Parte-hartzaileek sei hilabetean zehar Internet-en bidez bete zuten inkesta baten bitartez burutu zen zuntz-ahorakinaren jarraipena, honi esker, CG zuten partaideen zuntz-kontsumoa kuartiletan sailkatuz (Zuntz-hartzearen mediana/eguneko: 1. kuartila 10.4g; 2. kuartila 13.4g; 3. kuartila; 17.0g; 4. kuartila 23.7g). 6 hilabeteko jarraipena amaitzean eskuratutako emaitzek erakutsi zuten zuntz kontsumo kuartil altuenean kokatzen ziren CG zuten gizabanakoek, hau da, zuntz kontsumo gorena izan zutenak, kuartil baxuenean kokatzen ziren gizabanakoek baino aukera gutxiago zituztela agerraldi bat izateko (probabilitate-ratio doituak, 0.58; %95eko konfiantza-tartea, 0.37-0.90); 2. eta 3. kuartiletarako zenbatespenak 1. kuartilaren eta 4. kuartilaren artekoak izan ziren. Horrenbestez, adierazitako emaitzek 4. kuartilarekin bat datorren zuntz dietetikoaren eguneroko kontsumoa CG duten gizabanakoen agerraldi-arriskua murriztearekin lotuta egon litekeela ondorioztatzea baimendu zuten.

Gaixotasunaren jarduera-maila murriztu

Aztertutako esku-hartze dietetikoek CG igorpenean duten gizabanakoen jarduera-mailan zuten eragina aztertzeko, oro har CDAI (10.Eranskina) eta HBI (11.Eranskina) indize klinikoak erabili ziren.

Aurrera eramandako bi ausazko saiakuntza klinikoetan, FODMAP baxuko dietak CGren bilakaeran zuten eragina aztertu zen. Pedersen N et al-ek ⁽²⁹⁾ aurrera eramandako saiakuntza klinikoan, HHG zuten 78 gizabanako, hauetatik 23k CG igorpen-fasean edota gaixotasun arina zutelarik, ausaz bi taldeetan banatu zituzten. CG zuten esku-hartze taldeko 11 kideek FODMAP baxuko dieta jarraitu zuten sei astez, kontrol taldeko 12 kideek, berriz, beraien ohiko dieta jarraituz

denbora-tarte berean. Partaideek esleitutako dieta 6 astez jarraitu ostean, HBI balioaren murrizketa apala gauzatu zen CG zuten esku-hartze talde ($p = 0.05$) zein kontrol taldean ($p = 0.25$), bi hauen emaitzen artean ezberdintasun esanguratsurik adierazi gabe ($p = 0.09$). Bestalde, Bodini G et al-ek ⁽³⁰⁾ egindako itsu bikoitzeko saiakuntza klinikoan, HHG zuten 55 gizabanako, horietatik 35ek CG zutelarik (CG zuten 28 partaide igorpen-fasean zeuden), bi taldeetan banatu ziren ausaz. CG zuten esku-hartze taldeko 18 kideek sei astez FODMAP baxuko dieta jarraitu zuten, kontrol taldeko 17 kideek, berriz, HHGrako dieta estandarra deiturikoa jarraituz. Sei asteak igaro ondoren lortutako HBIren emaitzek adierazi zuten epe laburrean FODMAP baxuko dieta erabiltzeak gaixotasunaren jarduera murriztea lortu zezakeela CG zuten gizabanakoetan ($p = 0.024$), baita igorpen-fasean zeudenetan ere; kontrol taldeko kideek ez zuten emaitza estatistikoki esanguratsurik lortu ($p = 0.322$). Hala eta guztiz ere, ez zen alde estatistikoki esanguratsurik aurkitu esku-hartzeko taldearen eta aztertzen ari zen kontrol-taldearen artean ($p = 0.283$).

Bestetik, baztertze-dietei dagokienez, Gunasekeera V et al-ek ⁽³¹⁾ egindako itsu bikoitzeko entsegu klinikoan, IgG4k gidatutako bazterketa-dietaren eraginkortasuna ebaluatu zen CG aktiboa zein ez-aktiboa zuten 98 gizabanakotan, honetarako hauek, ausaz, bi taldeetan banatuz. Azterlanean, IgG4 markatzaile-mailak frogatu ziren 16 elikagai-moten alde, aztertutako esku-hartzeak zuten eragina aztertuz entsegua amaitu zuten 76 gizabanakoetan. Honetarako, esku-hartze taldeko 39 partaideek lau astez IgG4 markatzaile-maila altuena zuten lau elikagai motak ezabatu zituzten, kontrol taldeko 37 kideek, berriz, IgG4 markatzaile-maila baxuena zuten lau elikagai motak ezabatuz. Bi taldeetako partaideek esleitutako dieta lau astez jarraitu ostean, CDAI puntuazioaren murrizketa izan zuten arren, ikertzaileek esku-hartze taldeko kideen CDAI puntuazioaren hobekuntza estatistikoki esanguratsua jakinarazi zuten kontrol taldekoen emaitzekin alderatuta ($p = 0.009$). Esku-hartze taldean, CDAI puntuazioan izandako hobekuntza partaideen %41ean >100ekoa izan zen; aitzitik, kontrol taldekoen %16k soilik izan zuten hobekuntza hori. Hortaz, aipatutako emaitzetan oinarrituta, IgG4 markatzaile-maila altuenak dituzten elikagaiek gidatutako baztertze-dieta eraginkorra gertatuko litzateke CG-ren jardueramaila murrizteko; hala ere, aurreko emaitza adierazteko orduan ez zen partaideen jardueramailaren araberrako sailkapenik egin, emaitzak ikerketa hasieran igorpenean aurkitzen ziren gizabanakoekiko guztiz adierazgarriak izatea mugatuz.

Halaber, Olendzki B et al-ek ⁽³²⁾ burututako ikerketa pre-esperimentalak, ezaugarri antiinflamatorioak zituen dieta gutxienez lau astez jarraitzeak HHG zuten 11 gizabanako helduetan (8 CG eta 3 UK) izan zezakeen eragina aztertu zuten. CG zuten partaideen azpitaldean, hasierako HBIren batez bestekoa 11 izan zen (tartea = 1 - 20), esku-hartze dietetikoaren ondoren, batez bestekoa 1.5-ra jaitsiz, ondorioz, HBIren batez besteko 9.5 puntuko murrizketa lortuz. Emaitzak interpretatzean, kontuan hartu beharra dago azterlanak fase aktiboan zein ez-aktiboan dauden parte-hartzaileak barne hartu zituela, eta aipatutako lehen taldean gailentzen dela kopurua (6 aktibo, 2 igorpenean); beraz, nahiz eta HBIren puntuazioak behera egin CG igorpen-fasean zuten partaideen artean, lortutako emaitzak gaixotasunaren azpi-fasearen arabera ez bereizteak, igorpenean aurkitzen ziren gizabanakoekiko zuten adierazgarritasuna mugatu zuten, aztertutako esku-hartze dietetikoaren inguruko ondorio argirik ateratzea ekidinez.

Azkenik, aipatutako ikerketetan aztergai izan diren elikagai asko batzen dituen dieta, hain zuzen ere, gure herrialdeko bereizgarria den dieta mediterranea (DM) aztertu zen. Papada E et al-ek ⁽³³⁾ burututako azterlan sasi-esperimentalean, DMren patroia dietetikoak imitatzen zuen dieta batek CG zuten 86 gizabanakoetan izan zezakeen eragina aztertu zen, horietatik 45 gaixotasunaren igorpenean eta 41 agerraldi-fasean zeudelarik. Dietaren betetze-maila MedDiet tresnan lortutako puntuazioaren bidez ebaluatu zen, bertan, azken 6 hilabeteetan irentsitako hainbat elikagai-talde jasoz. MedDiet puntuazioaren bidez, DMrekiko atxikidura-maila handiagoa hauteman zen CG igorpenean zuten parte-hartzaileen taldean, gaixotasun aktiboa zutenen taldean baino ($p=0.005$); bestalde, ikerketa amaieran MedDiet eta HBIren puntuazioen arteko korrelazio negatibo esanguratsua adierazten zuten emaitzak lortu ziren ($r=-0.400$, $p<0.001$), horrenbestez, DM CGren jardura-maila kudeatzeko eraginkorra zela adieraziz.

Hesteetako mukosaren hantura eta sintomatologia arindu

Jorratutako esku-hartze dietetikoek CG igorpen egoeran zuten gizabanakoen hesteetako mukosaren hantura eta sintomatologia arintzeko zuten eragina aztertzeko, oro har, heste narritagarriaren sindromearen larritasun-puntuazioa (IBS-SSS; 12. Eranskina) eta sintoma gastrointestinalak sailkatzeko eskala (GSRS; 13. Eranskina) erabili ziren.

Cox SR et al-ek ⁽³⁴⁾ burututako itsu sinpleko entsegu klinikoak, CG igorpen-fasean zuten 26 partaideak, ausaz, bi taldetan banatu zituen, esku-hartze taldeko 14 kideek FODMAP baxuko dieta jarraituz lau astez, kontrol taldeko 12 kideek, berriz, "gold standard" dieta delakoa jarraituz denbora-tarte berean. Esleitutako dieta lau astez jarraitu ostean, esku-hartze taldeko gizabanakoek ez zuten hobekuntza nabarmenik jakinarazi azterketaren hasierako eta amaierako IBS-SSS emaitzak erkatuz ($p=0.515$), ezta desberdintasun esanguratsurik ere esku-hartze taldearen eta kontrolaren saiakuntzaren amaierako IBS-SSS puntuazioen artean ($p=0.515$). Emaitza esanguratsurik lortu ez zuen arren, FODMAP baxuko dieta jarraitzeak CG igorpenean zuten gizabanakoen hesteetako sintomatologiaren zenbait alderdi hobetzeko ahalmena zuela ondorioztatzea baimendu zuen, esku-hartze taldeko kideek hobekuntza estatistikoki esanguratsua hautemanez sabel-huste maiztasunean ($p=0.019$), ondoren, estatistikoki esanguratsua ez zen hobekuntza nabaritzuz sabeleko minaren intentsitatean ($p=0.475$), iraupenean ($p=0.871$) eta distentsio abdominalean ($p=0.071$).

Bestalde, honen inguruan Prince A et al-ek ⁽³⁵⁾ egindako ikerketa deskriptiboan, FODMAP baxuko dietak HHG igorpen-fasean zuten 88 partaiderengan zuten eragina aztertu zen, horietatik 39 gizabanakok CG zutelarik. Aztertutako dietak partaideengan zuten eraginaren batez beste 2.6 hilabeteko jarraipena burutu ostean, jarraipenaren hasieran eta amaieran burututako GSRSren bitarteko neurketan, CG zuten partaideen kopuru handi batek hobekuntza estatistikoki esanguratsua jakinarazi zuen sabeleko min moderatu-larrian ($p = 0.002$), distentsioan ($p < 0.001$), flatulentzian ($p = 0.031$) eta goragaleetan ($p = 0.031$). 11 sintoma funtzional gastrointestinalen inguruan lortutako emaitzen batez bestekoa egin zen, hobekuntza nabarmena erakutsiz

jarraipenaren hasieran eta amaieran jasotako emaitzak alderatzean ($p < 0.001$), aztertutako dieta jarraitu ostean, murrizketa handienak lortuz hanturan eta flatulentzian, eta ondoren sabeleko mina eta nekean.

Cox SR et al zein Prince A et al-en ikerketek FODMAP baxuko dietak gaixotasunaren berezko sintomatologian duen eragina aztertzeko diseinu, jarraipen-iraupen eta lanabes (IBS-SSS eta GSRS, hurrenez hurren) ezberdinak erabili izana emaitza ezberdintasunaren arduradun nagusiak izango lirateke, hala ere, antzeko emaitzak jakinarazi zituzten, hobekuntza handiena sabeleko min eta distentsioan jakinaraziz ^(34, 35).

Bestetik, baztertze-dietei dagokienez, Kakodkar S et al-ek ⁽²⁵⁾ egindako azterlan deskriptiboan, HHG igorpen-fasean zuten 50 gizabanakok (horietatik 36 CG izanik) KED jarraitu ostean, sintoma gastrointestinalak sailkatzeko eskalaren bitartez, 33 partaidek (%66) sintomen ebazpen osoa jakinarazi zuten, hauek dieta hasi eta batez beste 9.9 hilabetera desagertuz (tartea= 1-60 hilabete). Partaideek KEDk gaixotasunaren sintomatologia kontrolatzeko zuen eraginkortasuna adierazi zuten eskala analogiko baten bitartez, emaitzen batez bestekoa %91.3 (tartea= %30 - %100) izanik; hortaz, partaideen pertzepzioan oinarrituta adierazitako emaitzek, aztertutako dieta gaixotasunaren sintomatologiaren maneirako mesedegarria zela ondorioztatzea baimendu zuten.

Halaber, Suskind D et al-ek ⁽³⁶⁾ burututako ikerlan deskriptiboan, KED jarraitzen zuten HHG zuten 578 gizabanakoren (%47 CG, %43 UK, %10 ZK) jarraipena burutu zen, dietaren batez besteko dietaren jarraipena $31,1 \pm 54.9$ hilabetekoa izan zelarik (tartea= 0,25-780 hilabete). Dieta jarraitzen hasi aurretik aztertutako gizabanakoek hurrengo sintomatologia zutela adierazi zuten: %80k sabeleko mina, %81ek beherakoa, %67k gorozkietako odola, %58k pisua galtzea eta %65ek jarduera mugak murriztu zituzten. Oro har, parte-hartzaileek dieta jarraitu ahala sintomak murrizten joan zirela adierazi zuen, dieta jarraitzen hasi eta 12 hilabetera emaitzarik onenak jakinaraziz, jasaten zuten sintomatologiaren inguruko hurrengo ehunekoak aurkeztuz: %7k sabeleko mina, %10ek beherakoa, %5ek gorozkietako odola, %4k pisua galtzea eta %4k jarduera mugak murriztu zituzten.

Lehen aipatutako Olendzki B et al-ek ⁽³²⁾ egindako ikerketa jorratuz, lau astez dieta antiinflamatorioa jarraitu ostean, parte-hartzaileen %100ek HHGrekin lotutako sintomatologia digestiboa murriztu egin zuen, hortaz, digestio-hantura arintzeko lagungarria izan zitekeela frogatuz. Gainera, aipatutako dieta jarraitu zuten guztiek beren gastroenterologoekin lan egin zuten sendagaien erregimena murrizteko.

Azkenik, Brotherton C et al-ek ⁽³⁷⁾ egindako itsu sinpleko saiakuntza klinikoak, zuntz kontsumo altuko eta karbohidrato finduen kontsumo baxuan oinarritutako jarraibide dietetiko espezifikoek CG igorpen-fasean zuten gizabanakoen bizi kalitate eta heste-funtzionamenduan izan zezaketen eragina ikertu zuen. Honetarako, CG igorpen-fasean zuten 7 gizabanako, ausaz, bi taldetan banatu zituzten. Esku-hartze taldeko 4 kideek heste-sintomak kontrolatzeko, gari-zahia zereal integralen kontsumo altuaren eta karbohidrato finduen kontsumo baxuaren inguruko autore

ezberdinen jarraibide dietetikoak jaso zituzten (esaterako, egunean gari-zahia integraleko katilu erdia edo 60 gramo kontsumitu, egunero azukrerik gabeko 1.5 litro ur edan); kontrol-taldeko 3 kideek berriz, heste-sintomen kontrolerako abiarazle dietetikoaren identifikazioa erabiltzen zuten pertsonengandik jaso zituzten argibide eta gomendioak, hauek zuntz dietetikoaren kontsumoa saihestea proposatzen zutelarik (esaterako, zereal integralen kontsumoa saihestu aldi sintomatikoetan, egunero azukrerik gabeko 1.5 litro ur edan). Partaideek jasotako argibide eta gomendio dietetikoak 4 asteetan zehar jarraitu ostean, esku-hartze taldeko kideek pHBIren murriztea estatistikoki esanguratsua lortu zuten kontrol-taldearen emaitzekin alderatzean ($p=0.008$); esku-hartze taldeko kide guztiek "zero" puntuazioa lortu zuten 4. astean, ongizate orokorra narriatzen zuten sintoma iraunkor, sabeleko min edo gorozki likidoen gabezia adieraziz. Kontrol-taldeko kide guztiek, berriz, "hiru"ko puntuazioa lortu zuten, ondorioz, lehen aipatutako sintomatologia pairatuz. Hortaz, adierazitako emaitzek, gari-zahia zereal integralen kontsumo altuan eta karbohidrato finduen kontsumo baxuan oinarritutako esku-hartze dietetikoak funtzio gastrointestinalaren hobekuntza eragiteko ahalmena zuela ondorioztatzea baimendu zuten.

Bizi-kalitatea

Amaitzeko, orain arte landutako esku-hartze dietetikoak osasunarekin lotutako bizi-kalitatean izan zezaketen eragina neurtu zen IBDQ eta SIBDQ galdetegien bitartez (14. Eranskina).

Hurrengo saiakuntza klinikoek FODMAP baxuko dieta sei astez jarraitzeak HHG zuten gizabanakoen osasunarekin lotutako bizi-kalitatean zuen eragina aztertu zuten IBDQ eta SIBDQ galdetegien bitartez, hurrenez hurren. Bodini G et al-ek ⁽³⁰⁾ egindako entsegu klinikoaren amaieran, kontrol taldean ikusi ez zen ($p=0.880$) IBDQ medianaren igoera apala jakinarazi zen esku-hartze taldean ($p=0.05$), hala ere, ez zen taldeen arteko alde estatistikoki esanguratsurik gauzatu ($p=0.886$); emaitzak azaltzerakoan HHGren azpitaldeen arteko banaketarik ez zen egon, ez baitzen aldaketarik ikusi CG eta UK azpitaldeen artean. Hala ere, Pedersen N et al-ek ⁽²⁹⁾ egindako saiakuntza klinikoan, nahiz eta esku-hartze taldeko kideek entseguaren amaieran SIBDQ emaitzetan hobekuntza nabarmen handiagoa lortu kontrol taldeko kideen emaitzekin alderatuta ($p<0.01$), bi taldeek lortutako emaitzek ez zuten frogatu osasunarekin lotutako bizi-kalitatearen hobekuntza esanguratsurik ($p=0.09$).

Horrenbestez, aipatutako bi azterlanek osasunarekin lotutako bizi-kalitatearen inguru emaitza ezberdinak adieraztearen arrazoia, gaixotasunaren jarduera-mailaren eta bizi-kalitatearen hobekuntzaren arteko korrelazioa izan liteke. Halaber, Bodini G et al-en azterlanean, esku-hartze taldeak jarduera-mailaren eta bizi-kalitatearen hobekuntza esanguratsua adierazten zuten emaitzak lortu zituzten, Pedersen N et al-en azterlanean gauzatu ez zen bezala, azken honetan, CG zuten gizabanakoen HBIIn emandako hobekuntza apalak lotura izanik esanguratsua gauzatu ez zen bizi-kalitatearen hobekuntzarekin ^(29, 30).

Bazterte-dietei dagokienez, Gunasekeera V et al-en ⁽³¹⁾ entsegu klinikoak IgG4k gidatutako bazterte-dietak gizabanakoen bizi-kalitatean izan zezakeen eragina aztertu zuen SIBDQren

bitartez. Partaideek entsegu hasieran esleitutako dieta lau astez jarraitu ostean, esku-hartze taldeko kideen SIBDQ puntuazioaren hobekuntza nabarmena adierazi zen kontrol taldekoek lortutako emaitzekin alderatzean ($p < 0.007$).

Bestalde, Brotherton C et al-ek ⁽³⁷⁾ zuntz kontsumo altuko eta karbohidrato finduen kontsumo baxuko esku-hartze dietetikoaren inguru burututako saiakuntza klinikoan, esku-hartzeak parte-hartzaileen bizi-kalitatean zuen eragina ere aztertu zen. Esku-hartze taldekoengan IBDQn lortutako puntuazioa nabarmen handitu zen azterlanean zehar, osasunarekin lotutako bizi-kalitatearen hobekuntza handiagoa adieraziz esku-hartze amaieran, eta alde nabarmenak ezarriz kontrol-taldean lortutako puntuazioekin ($p = 0.028$).

Amaitzeko, Papada E et al-ek ⁽³³⁾ DM-ak gaixotasunaren bilakaeran duen eragina ikertzeaz gain, CG zuten gizabanakoetan izan zezakeen eragina aztertu zuen, MedDiet puntuazioaren eta IBDQ puntuazioaren arteko korrelazio positiboa adierazten zuten emaitza esanguratsuak lortuz ($r = 0.291$, $p = 0.008$). Bestetik, Chicco F et al-ek ⁽³⁸⁾ aurrera eramandako ikerketa pre-esperimentalean, dieta mediterraneoak HHG zuten 142 pertsonarengan zuen eragina ikertu zen, horietatik 58k CG zutelarik, 49k igorpen-fasean, hain zuzen ere. Orobat, ikerketa honetako emaitzek adierazi zuten, partaideek DMren patroia dietetiko 6 hilabetetan zehar jarraitu ondoren, IBDQren batez bestekoa nabarmen handitu zela dieta horrekiko atxikidura ona izan zuten CG duten gizabanakoen artean ($p < 0.001$).

LIMITAZIOAK

Hasieran, berrikusketa lan honen helburua CGren fase aktiboa tratatzeko eskuragarri zeuden terapia dietetikoak aztertzea zen. Helburu honi erantzuteko artikulu erabilgarri gutxiegi aurkitu ziren, gai honen inguruan eskuragarri zegoen informazioa mugatua zela konturatuz. Aurkitutako nahiko artikulu gaixotasunaren igorpen-fasera bideratuta zegoela jabetzean, lanaren helburua aldatzeko erabakia hartu zen, igorpen-fasean zentratutako interbentzio dietetikoaren eraginkortasuna aztertuz.

Artikuluen diseinuari begira, mugak identifikatu ziren ikerketako parte-hartzaileen ezaugarrien inguruan. Orobat, zenbait azterlanetan laginaren tamaina txikia izan zen, hain zuzen ere, berrikuspenerako erabilitako ikerketen artean hiruk 25 gizabanako baino gutxiago aztertuz ^(29, 32, 37), hortaz, ikerketen ahalmen estatistikoa mugatuz.

Bestalde, helburuari erantzuten zioten eta barneratze-irizpideak betetzen zituzten azterlanen kopurua mugatua izateak HHG azpimotak edota azpi faseak bereizten ez zituzten ikerketak barne hartu beharra eragin zuen ^(25, 31, 32, 36). Horrenbestez, azpimotak edota azpi fase bakoitzaren berezitasunak alde batera uzteak, parte-hartzaileen ezaugarriak homogeenak izatea ekiditeaz gain, adierazitako emaitzak CGren igorpen-egoeraren adierazgarriak izatea oztopatu zuen.

Itsutze estrategiei dagokienez, aipatu beharra dago esku-hartze mota (dietetiko) eta CG duten gizabanakoek, oro har, elikaduraren inguruan izan ohi duten ezagutza nabarmenak hauen itsutzea burutzearen bideragarritasuna mugatzen duela. Horrenbeste, interesgarria litzateke ikerketa hauetan adituen itsutzea gauzatea, esku-hartze eta kontrol-taldeak lortutako emaitzak aztertzerakoan, datuen analisisian alborapenik gauzatzeko aukera murriztuz.

Bestetik, aztertutako ikerketek esku-hartze dietetiko ezberdinek sintoma digestiboen arintzean, gaixotasunaren jardura-mailan edo gaixotasunarekin lotutako bizi-kalitatean zuten eragina neurtzeko eskala edo lanabes ezberdinak erabili izanak (HBI, CDAI, IBS-SSS, GSRS, IBDQ, SIBDQ), diseinu ezberdinek emaitzak adierazteko erabilitako modu heterogeneoekin batera (p-ren balioa, ehunekoa, tarteak, probabilitate-ratioa, konfiantza-tartea), berrikusketa-lan honetan emaitzak era homogeenan azaldu ahal izatea oztopatu zuen.

Azkenik, aipagarriak dira CGren igorpenari eusteko kontzeptuarekin aurkitutako zailtasunak, izan ere, Nazioarteko Erakundearen iritzia kontuan hartuta, ECCOren ustez HHG duten pazienteetan esku-hartze dietetikoek gaixotasunaren igorpen-egoerari eusteko duen eraginkortasuna ebaluatzen duten azterlanek gutxienez 12 hilabeteko iraupena izan behar baitute. Horrenbestez, aipatutakoa jakinda, FODMAP baxuko dieta, IgG4k gidatutako bazterte dieta, dieta antiinflamatorioa, dieta mediterranea eta zuntzaren inguruko esku-hartze dietetikoak aztertzen zituzten aurkitutako artikuluek 4 aste eta 6 hilabete arteko jarraipenak burutzean, hauen epe motzeko eragina baino ez zuten ikertu, aipatutako esku-hartze dietetikoek CG zuten pazienteen igorpen-egoerari eusteko eraginkorra zen edo ez frogatu ezinik.

ONDORIOAK

Literaturaren errebisio honen bitartez, CG igorpenean duten pertsonen tratamendurako eskuragarri dauden hainbat esku-hartze dietetikok igorpen-egoera mantendu, gaixotasunaren jarduera-maila murriztu, hesteetako mukosaren hantura eta sintomatologia arindu eta bizi-kalitatea hobetzeko duten eraginkortasuna aztertu da.

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago, ezinezkoa gertatu dela aztertutako esku-hartze dietetiko guztiek CGren igorpen-egoerari eusteko duten gaitasuna frogatzea; zehazki, FODMAP baxuko dietak, IgG4k gidatutako baztertze dietak, dieta antiinflamatorioak, dieta mediterraneoak eta zuntzaren inguruko esku-hartze dietetikoak epe luzera izan ditzaketen ondorioei buruz aurkitutako ebidentzia eskasak, hauek CG duten pazienteen kasuan igorpen-faseari eusteko eraginkorrak diren ondorioztatzea ekidinez. Hortaz, aipatutako dieten epe-motzeko erabilerak, gaixotasunaren jarduera-maila arintzeko gaitasuna frogatu izanak, CG igorpenean duten pertsonetan hauen erabilera gomendatzea ahalbidetzen duen arren, epe luzera dietak izan ditzaketen ondorioei buruz eskuratutako ebidentzia urriak ez du baimentzen dieta hauen erabilera luzatzea.

Bestalde, N-3 gantz azido poli asegabeek CGren gain dituen onurak osagarrien erabileraren bitartez ikusi ohi badira ere, honen erabileran oinarritutako esku-hartze dietetikoak ikertu zuen azterlanak gaixotasunaren igorpenari eusteko mesedegarriak izan zitekeela frogatzea baimendu zuen, honen epe luzerako eraginkortasuna baieztatuz.

Alabaina, esku-hartze dietetiko guztiek, neurri handiago edo txikiagoan, sintoma digestiboak arintzeko eraginkorrak direla erakutsi dute. FODMAP baxuko dieta aztertzen zuten ikerketei dagokienez, guztiek esku-hartze eta kontrol-taldearen arteko ezberdintasun esanguratsurik adierazi ez arren, orokorrean CGren bereizgarria den sintomatologia digestiboaren hobekuntza adierazi zen (hala nola, sabeleko mina eta hanturan, flatulentzian, deposizioen maiztasunean, beherakoetan, eta gorakoetan); baliteke azterlanen emaitzen arteko ezberdintasuna esku-hartzea eraman zen iraupenaren ezberdintasunekin lotuta egotea. Bestetik, berrikusitako literaturak zuntz dietetikoaren erabilerak, karbohidrato espezifikoaren dietak eta dieta antiinflamatorioak sintomatologia digestiboa arintzeko gaitasuna dutela adierazi izan arren, aipatutako azkeneko bi dietak aztertu zituzten ikerketen emaitzek gaixotasunaren azpi-fase edo azpi-motak ez bereizteak, eskuragarri dagoen ebidentzia urriarekin batera, eraginkortasun-mailaren irismena ezagutzea mugatzen du, ondorioz, hauen eraginkortasuna bermatzea oztopatuz.

Kontuan hartu beharrekoa da, aipatutako dietek CG tratatzeko duten eraginkortasuna frogatzen duen ebidentzia egon arren, azpian dagoen mekanismo patogenoa ez ulertzearen ondorioz garrantzitsuak diren osagai zehatzen ulermenak mugatua izaten jarraitzen duela.

Amaitzeko, IBDQ eta SIBDQ galdetegien bitartez, esku-hartze dietetikoaren eta igorpenean dauden CG duten pertsonen osasunarekin lotutako bizi-kalitatearen arteko erlazioa aztertu den ikerlan

gehienetan hobekuntza esanguratsua hauteman izan da, horrek dietak gizabanakoentzat duen garrantzia erakutsiz. Eraitza hauek, berrikusketaren justifikazio atalean aipatu bezala, CG duten gizabanakoek osasun-profesionalen aholkularitza eta jarraipen dietetikoaren inguruan hautemandako gabezia hornitu beharra ikusarazi dute.

Lan honen emaitzek erizaintzako profesionalak CG duten pazienteen aholkularitza-dietetikoaren arduradunak izatearen garrantzia indartzen dute, pazientearekin beste osasun-profesional batzuek baino harreman hurbilagoa eta ohikoagoa izatean, egoera mesedegarrian baitaude. Gehienbat, osasun-profesionalaren gertutasunari lotuta eta epe-luzera zainketak eskaintzeko eskumena kontuan hartuta, lehen mailako arretako erizaina CG igorpen fasean aurkitzen den pazientearen hezkuntza eta jarraipena aurrera eramateaz arduratzea ezinbestekotzat hartzen da, igorpenari eusteko edota sintomatologia arintzeko.

Erizaintzaren kode deontologikoan oinarrituta, eta CGren izaera kronikoa kontuan hartuta, erizaintzako profesionalek gaixotasunaren autozaintetan trebatu beharko lukete pazienteak. Landutako esku-hartze dietetikoak abiapuntutzat hartuta, CG duten pertsonen heziketa, aholkularitza eta jarraipen beharrak asetzeaz gaiz, gaur egun, alderdi honetan aurkezten den gabeziari irtenbidea ematen saiatu da, berrikusketa honen bitartez erizaintzako profesionalentzat erabilgarria gerta litekeen literaturaren errebisioa burutuz. Azken batean, berrikusketa lan honek, erizaintzako profesionalek hezkuntza eta prestakuntza dietetikoaren bidez, CG duen pertsonak bere gaixotasuna era autonomoan kudeatu ahal izatearen alde egiten du, horrela, pazientearen ongizate fisikoa eta psikologikoa sustatuz eta gaixotasunaren berezko arriskuak murriztuz.

Azkenik, lan hau egiteko aurkitu ditudan mugetan oinarrituz, beharrezkoa ikusten dut landutako gaiaren inguruko eraginkortasun-erlazioak ezartzea ahalbidetzen duten kalitate metodologiko handiko azterlanak burutzea; hain zuzen ere, CG igorpen-egoeran duten gizabanakoak barneratzen dituen lagin tamaina handiagoarekin burututako ausazko entsegu klinikoak, esku-hartzearen eraginkortasuna neurtzeko hasi aurretik eta gutxienez 12 hilabetera aztertutako aldagaien neurketa burutuz eta alborapenak saihesteko, esku-hartzeak ahalbidetzen dituen itsutze estrategiak erabiliz.

BIBLIOGRAFIA

1. Mak WY, Hart AL, Ng SC. Crohn's disease. *Medicine*. 2019;47(6):377-387.
2. Ballester MP, Maia M, Pérez M. Enfermedad de Crohn. *Medicina Clínica*. 2018;151(1):26–33.
3. Hendy P, Hart A. A review of Crohn's disease. *European Medical Journal Gastroenterology*. 2013; 1:116–123.
4. Ondategui S, editor. *Enfermedad Inflamatoria Intestinal: situación actual y retos asistenciales*. Madrid: Centro de Investigación de Ciencias de la Salud de EY; 2016 [cited 2021 Jan 27]. Available from: [Enfermedad Inflamatoria Intestinal: situación actual y retos \(studylib.es\)](https://studylib.es)
5. De La Coba C, Saro C. Manual de ayuda para pacientes con enfermedad de Crohn [Internet]. Gijón: Geteccu; 2012 [cited 2021 Feb 19]. Available from: <https://geteccu.org/contenidos/up/2015/07/Epidemiolog%C3%ADa-EC.pdf>
6. Casellas F, Ginard D, Hinojosa J, Bastida G, Lindner L, Vieta A. Costes médicos directos de la enfermedad de Crohn en España. *PharmaEconomics*. 2010;7(1): 38-46.
7. Veauthier B, Hornecker JR. Crohn's Disease: Diagnosis and Management. *American Family Physician*. 2018; 98(11): 661–669.
8. Van Assche G, Dignass A, Panes J, Beaugerie L, Karagiannis J, Allez M, et al. The second European evidence-based Consensus on the diagnosis and management of Crohn's disease: Definitions and diagnosis. *Journal of Crohn's and Colitis*. 2010;4(1):7–27.
9. Crabtree U. Enfermedad Inflamatoria Intestinal. Primera Parte. *Revista Gastrohnp*. 2010; 12(3):9-17.
10. Basson A. Nutrition management in the adult patient with Crohn's disease. *South African Journal of Clinical Nutrition*. 2012; 25(4): 164–172.
11. Monrroy H, Ibáñez P. Clasificación de la gravedad de la enfermedad inflamatoria intestinal. *Gastroenterología latinoamericana*. 2013; 24 (2): 85-90.
12. Alrubaiy L, Rikaby I, Dodds P, Hutchings HA, Williams JG. Systematic Review of Health-related Quality of Life Measures for Inflammatory Bowel Disease. *Journal of Crohn's and Colitis*. 2015; 9 (3): 284-292.
13. Sajadinejad MS, Asgari K, Molavi H, Kalantari M, Adibi P. Psychological issues in inflammatory bowel disease: An overview. *Gastroenterology Research and Practice*. 2012.

14. García S, Lillo M, Sanjuán A, Richart M. Enfermedad de Crohn: experiencias de vivir con una cronicidad. *Salud Pública de México*. 2016; 58(1): 49-55.
15. García S, Lillo M, Sanjuán A, Richart M. Hábitos dietéticos y creencias sobre la alimentación de las personas con Enfermedad de Crohn. *Nutrición Hospitalaria*. 2015; 32(6):2948-2955.
16. De Vries JHM, Dijkhuizen M, Tap P, Witteman BJM. Patient's Dietary Beliefs and Behaviours in Inflammatory Bowel Disease. *Digestive Diseases*. 2019; 37(2):131–139.
17. Martínez MJ, Melián C, Romero M. Nutrición en enfermedad inflamatoria intestinal. *Nutrición hospitalaria*. 2016; 33(4):60-3.
18. Tinsley A, Ehrlich OG, Hwang C, Issokson K, Zapala S, Weaver A, et al. Knowledge, Attitudes, and Beliefs Regarding the Role of Nutrition in IBD among Patients and Providers. *Inflammatory Bowel Diseases*. 2016; 22(10): 2474–2481.
19. Hesteetako gaixotasun inflamatorioa, kolitis ultzeraduna edo Crohn-en gaixotasuna duten pazienteentzako dieta. *Osakidetza. Araba Erakunde Sanitario Integratua*; 2018 [Updated 2018 May, cited 2021 March 7]. Available from: <http://www.osiaraba.eus/infopacientes/documentos/servicios/digestivo/hojasinfo/eus/IO-DIG-DIETAK-21%20Hesteetako%20gaixotasun%20Inflamatorioa,%20Kolitis.pdf>
20. Cicero A. Enfermedad de Crohn en Atención Primaria. *Nuberos Científica*. 2019; 3 (27): 18-26.
21. McDermott E, Healy G, Mullen G, Keegan D, Byrne K, Guerandel A, et al. Patient Education in Inflammatory Bowel Disease: A Patient-Centred, Mixed Methodology Study. *Journal of Crohn's and Colitis*. 2018; 12(4): 419–424.
22. Khalil H, Peters M, Godfrey CM, Mcinerney P, Soares CB, Parker D. An Evidence-Based Approach to Scoping Reviews. *Worldviews Evidence-Based Nurs*. 2016;13(2):118–23.
23. Moher, D., Liberati, A., Tetzlaff, J., Altman, D., & The PRISMA Group. Preferred reporting items for systematic reviews and meta-analyses: The PRISMA statement. *Annals of Internal Medicine*. 2009; 151(4), 264-269.
24. Albenberg L, Brensinger CM, Wu Q, Gilroy E, Kappelman MD, Sandler RS, et al. A diet low in red and processed meats does not reduce the rate of Crohn's disease flares in a randomized controlled trial. *Gastroenterology*. 2019;157(1):128-136.
25. Kakodkar S, Farooqui A, Mikolaitis S, Mutlu E. The Specific Carbohydrate Diet for Inflammatory Bowel Disease: A case series. *Journal of the Academy of Nutrition and Dietetics*. 2015; 115 (8): 1226-1232.

26. Brotherton C, Martin C, Long M, Kappelman M, Sandler R. Avoidance of Fiber Is Associated with Greater Risk of Crohn's Disease Flare in a 6-Month Period. *Clinical Gastroenterology and Hepatology*. 2016;14(8):1130–1136.
27. Lev-Tzion R, Griffiths A.M, Leder O, Turner D. Omega 3 fatty acids (fish oil) for maintenance of remission in Crohn's disease. *Cochrane Database Systematic Review*. 2014, 2, CD006320.
28. Uchiyama K, Nakamura M, Odahara S, Koido S, Katahira K, Shiraishi H, et al. N-3 polyunsaturated fatty acid diet therapy for patients with inflammatory bowel disease. *Inflammatory Bowel Diseases*. 2010;16(10):1696–1707.
29. Pedersen N, Ankersen DV, Felding M, Wachmann H, Végh Z, Molzen L, et al. Low-FODMAP diet reduces irritable bowel symptoms in patients with inflammatory bowel disease. *World Journal of Gastroenterology*. 2017;23(18):3356–3366.
30. Bodini G, Zanella C, Crespi M, Lo Pumo S, Demarzo MG, Savarino E, et al. A randomized, 6-wk trial of a low FODMAP diet in patients with inflammatory bowel disease. *Nutrition*. 2019; 67 (68): 1-7.
31. Gunasekeera V, Mendall MA, Chan D, Kumar D. Treatment of Crohn's Disease with an IgG4-Guided Exclusion Diet: A Randomized Controlled Trial. *Digestive Diseases and Sciences*. 2016;61(4):1148–1157.
32. Olendzki B, Silverstein T, Persuitt G, Ma Y, Baldwin K, Cave D. An anti-inflammatory diet as treatment for inflammatory bowel disease: A case series report. *Nutrition Journal*. 2014;13(5): 1-7.
33. Papada E, Amerikanou C, Forbes A, Kaliora A. Adherence to mediterranean diet in Crohn's disease. *European journal of nutrition*. 2020; 59: 1115-1121.
34. Cox SR, Lindsay JO, Fromentin S, Stagg AJ, McCarthy NE, Galleron N, et al. Effects of Low FODMAP Diet on Symptoms, Fecal Microbiome, and Markers of Inflammation in Patients with Quiescent Inflammatory Bowel Disease in a Randomized Trial. *Gastroenterology*. 2020;158(1):176-188.
35. Prince A, Myers C, Joyce T, Irving P, Lomer M, Whelan K. Fermentable Carbohydrate Restriction (Low FODMAP diet) in Clinical Practice Improves Functional Gastrointestinal Symptoms in Patients with Inflammatory Bowel Disease. *Inflammatory Bowel Diseases*. 2016; 22(5): 1129-1136.
36. Suskind D, Wahbeh G, Cohen S, Damman C, Klein J, Braly K, et al. Patients Perceive Clinical Benefit with the Specific Carbohydrate Diet for Inflammatory Bowel Disease. *Digestive Diseases and Sciences*. 2016; 61: 3255-3260.

37. Brotherton C, Taylor A, Bourguignon C, Anderson J. A high-fiber diet may improve bowel function and health-related quality of life in patients with Crohn disease. *Gastroenterology Nursing*. 2014; 37(3):206-216.
38. Chicco F, Magrì S, Cingolani A, Paduano D, Pesenti M, Zara F, et al. Multidimensional Impact of Mediterranean Diet on IBD Patients. *Inflammatory bowel diseases*. 2021; 27(1): 1-9.

ERANSKINAK

1. Eranskina. Crohn-en gaixotasunaren digestio-aparatuaren barne eta kanpoko adierazpen klinikoak.

Adierazpen kliniko digestiboak	Digestio aparatutik at ematen diren adierazpen klinikoak
<ul style="list-style-type: none">- Hazkundearen atzerapena (adingabeetan; pisu eta altueraren atzerapena)- Garapen sexualaren atzerapena (nerabeetan)- Anorexia, sukarra eta pisu galera- Min abdominal errepikakorra- Masa abdominala- Beherakoak eta gorakoak- Gaixotasun perianala/ fistulak- Konplikazio nagusiak: hemorragia, hesteetako zulatzea, fistulak, abzesuak, estenosis, hesteetako buxadura, minbizia	<ul style="list-style-type: none">- Larruazala: eritema nodosoa, pioderma gangrenosoa- Artikulazioak: artritis, espondilitis ankilosantea- Begiak: epieskleritisa, eskleritisa, ubeitisa- Behazun-sistema: lehen mailako kolangitis esklerosatzaila- Beste konplikazio nagusi batzuk: zainetako tronboenbolismoa, osteoporosia, behazun kalkuluak, gibel koipetsuaren gaixotasuna (jatorria alkoholarekin zerikusia izan gabe)

(Amunarriz eginda, Mak WY et al. 2019 eta Basson A 2012 oinarrituta)

2. Eranskina. Crohn-en gaixotasunaren Montreal sailkapena

Diagnostiko adina (A)	A1 16 urtetik beherakoa A2 17 eta 40 urte bitartean A3 40 urtetik gorakoa	
Kokapena (L)	L1 ileon terminala L2 Kolonikoa L3 Ileokolonikoa L4 Goi digestio-traktua	L1+L4 (ileon terminala + goi digestio-traktua) L2+L4 (kolona + goi digestio-traktua) L3+L4 (ileokolonikoa + goi digestio-traktua)
Portaera (B)	B1 Ez estenosatzailea, ez sarkorra, hanturazkoa B2 Estenosatzailea B3 Fistulizatzailea	B1p (hanturazkoa uzki inguruko afekzioarekin) B2p (estenosatzailea uzki inguruko afekzioarekin) B3p (fistulizatzailea uzki inguruko afekzioarekin)

Crohn-en gaixotasunaren fenotipoaren araberako sailkapena burutu daiteke Montreal sailkapen sistemaren bitartez, gaixotasunaren ezaugarrien araberako pronostikoa ezagutzea ahalbidetuz.

Monrroy H, Ibáñez P. Clasificación de la gravedad de la enfermedad inflamatoria intestinal. Gastroenterología latinoamericana. 2013; 24 (2): 85-90.

3. Eranskina. Kontzeptu-taula

Kontzeptu nagusia	Lengoaia naturala			Lengoaia kontrolatua (deskriptoreak)
	Sinonimoa	Antonimoa	Ingelesez	
Crohn-en gaixotasuna	Hanturazko heste gaixotasuna HHG Crohn-en gaixotasuna		Inflammatory bowel disease IBD Crohn's disease	Medline (MeSH): Crohn disease, Inflammatory bowel disease. EMBASE (EMTREE): Crohn disease, Inflammatory bowel disease. CINAHL (Descriptores de CINAHL): Crohn's disease, Inflammatory bowel disease. Cochrane Database (MeSH): Crohn disease, Inflammatory bowel diseases.
Igorpen fasea	Igorpena Igorpenaren mantentzea Igorpena eragin	Gaixotasun aktiboa Gaixotasun akutua	Remission Remission maintenance Remission induction	Medline (MeSH): Remission.mp., Remission maintenance.mp., Remission induction. EMBASE (EMTREE): Remission, Remission maintenance.mp., Induction of remission.mp. CINAHL (Descriptores de CINAHL): Remission, Remission maintenance.mp., Induction of remission.mp. Cochrane Database (MeSH): Remission.mp., Remission maintenance.mp., Remission induction.
Dieta	Dieta Terapia dietetikoa Esku-hartze dietetikoa Dietaren kudeaketa		Diet Diet therapy Dietary interventions Dietary management Nutrition	Medline (MeSH): Diet, Diet therapy, Dietary interventions.mp., Dietary management.mp., Nutritional management.mp. EMBASE (EMTREE): Diet, Diet therapy, Dietary interventions.mp., Dietary management.mp., Nutritional management.mp. CINAHL (Descriptores de CINAHL): Diet, Diet therapy, Dietary interventions, Dietary management, Nutritional management.

	Nutrizioa Nutrizioaren kudeaketa		Nutritional management	Cochrane Database (MeSH): Diet, Diet therapy, Dietary interventions.mp., Dietary management.mp., Nutritional management.mp.
Heldua	Heldua Heldu gaztea Adindua		Adult Young adult Aged	Medline (MeSH): Adult. EMBASE (EMTREE): Adult. CINAHL (Descriptores de CINAHL): Adult. Cochrane Database (MeSH): Adult.
Erizaintza zainketak	Erizain esku- hartzea Erizaintza zainketak Erizaina Erizaintza		Nurse intervention Nursing care Nurse Nursing	Medline (MeSH): Nurs*.mp. EMBASE (EMTREE): Nurs*.mp. CINAHL (Descriptores de CINAHL): Nurs*.mp. Cochrane Database (MeSH): Nurs*.mp.

4. Eranskina. Bilaketa-taula

Datu-basea	Bilaketa ekuazioa	Aurkitutako emaitzak	Oharrak Datu-baseetan burututako bilaketen bitartez eskuratutako artikuluz guztiak Mendeley aplikazioan zerrendatu ziren
1.MEDLINE (OVID)	Crohn disease AND (Diet OR Diet therapy) <i>+ filtro 2010-Current</i>	136	Bilaketa zabala burutu arren, artikuluz kopurua ez da gehiegizkoa izan.
2.MEDLINE (OVID)	Inflammatory bowel disease AND (Diet OR Diet therapy) <i>+ filtro 2010-Current</i>	269	Bilaketa zabalegia. Artikulu gehiago aurkitzeko asmoz, hesteetako gaixotasun guztiak biltzen dituen deskriptorea erabili nahi izan dut, zabalegia gauzatu.
3.MEDLINE (OVID)	Crohn disease AND Dietary interventions.mp. <i>+ filtro 2010-Current</i>	11	Crohn-en gaixotasunaren tratamendurako eskuragarri dauden esku-hartze dietetiko guztiak biltzen dituzten artikuluz aurkitzeko gehitu dut "dietary interventions" kontzeptua; ekuazio honen bitartez lortutako emaitza kopurua nahiko makala izan da.
4.MEDLINE (OVID)	Inflammatory bowel disease AND Dietary interventions.mp.	26	Artikulu gehiago aurkitzeko asmoz, hesteetako gaixotasun guztiak biltzen dituen kontzeptua erabili dut, estrategia eraginkorra gauzatu, lortutako

	+ filtro 2010-Current		emaitza kopurua aurrekoan lortutakoa bikoizten baitu.
5.MEDLINE (OVID)	Crohn disease AND (Dietary management.mp. OR Nutritional management.mp.) + filtro 2010-Current	9	Bilaketan Crohn-en gaixotasunaren maneiu dietetiko zein nutrizionalaren inguruko artikulak lortzeko erabili ditudan kontzeptuak ez dira eraginkorrak izan, emaitza kopurua gehiago mugatzea baino ez dut lortu hauekin.
6.MEDLINE (OVID)	(Crohn disease OR Inflammatory bowel disease) AND (Diet OR Diet therapy) AND Remission induction + filtro 2010-Current	21	Bilaketa eraginkorra, bertan "remission induction" erabili zen datu-base honetan igorpenarekin lotutako eskuragarri zegoen deskriptore bakarra zelako.
7. MEDLINE (OVID)	(Crohn disease OR Inflammatory bowel disease) AND (Diet OR Diet therapy) AND (Remission maintenance.mp. AND Remission.mp.) + filtro 2010-Current	70	Bilaketa eraginkorra, bertan igorpen fasearen mantentzeari erreferentzia egiten zioten hitz naturalak erabili ziren, datu-base honetan ez baitziren deskriptore moduan agertzen.
8. MEDLINE (OVID)	(Crohn disease OR Inflammatory bowel disease) AND (Diet OR Diet therapy) AND Nurs*.mp. + filtro 2010-Current	6	Emaitza kopuru mugatua lortu dut bilaketa honetatik izartxoaren bitartez erizaintzaren esku-hartzearekin lotutako artikulua guztiak lortzeko saiakera egin arren.

1. EMBASE	Crohn disease AND (Diet OR Diet therapy) AND Adult + filtro 2010-Current	325	Bilaketa orokorregia. Bilaketa ekuazioari, emaitza kopurua mugatzeko "adult" deskriptorea gehitu izan arren emaitza kopurua gehiegizkoa gauzatu da.
2. EMBASE	Inflammatory bowel disease AND (Diet OR Diet therapy) AND Adult + filtro 2010-Current	200	Bilaketa orokorregia. Bilaketa ekuazioari, emaitza kopurua mugatzeko "adult" deskriptorea gehitu izan arren emaitza kopurua gehiegizkoa gauzatu da.
3. EMBASE	Crohn disease AND Dietary interventions.mp. + filtro 2010-Current	53	Bilaketa eraginkorra. Aurreko datu-basean burututako bilaketa errepikatu dut, honetan emaitza kopuru nahikoa lortuz.
4. EMBASE	Inflammatory bowel disease AND Dietary interventions.mp. + filtro 2010-Current	57	Bilaketa eraginkorra. Aurreko datu-basean burututako bilaketa errepikatu dut, honetan emaitza kopuru nahikoa lortuz.
5. EMBASE	Crohn disease AND (Dietary management.mp. OR Nutritional management.mp.) + filtro 2010-Current	46	Bilaketa eraginkorra. Aurreko datu-basean burututako bilaketa errepikatu dut, honetan emaitza kopuru nahikoa lortuz.
6. EMBASE	(Crohn disease OR Inflammatory bowel disease) AND (Diet OR Diet therapy) AND Induction of remission.mp. + filtro 2010-Current	100	Bilaketa eraginkorra. Aurreko datu-basean burututako bilaketa errepikatu dut, honetan emaitza kopuru nahikoa lortuz. Kasu honetan, datu-basean "remission induction" deskriptorea ez egotearen

			ondorioz, hitz naturalak erabili ditut aipaturako kontzeptua biltzeko.
7. EMBASE	(Crohn disease OR Inflammatory bowel disease) AND (Diet OR Diet therapy) AND (Remission maintenance.mp. AND Remission) AND Adult <i>+ filtro 2010-Current</i>	34	Bilaketa honetan lanaren helburu zehatzarekin bat datorren artikulak bilatzen saiatu naiz deskriptore askoren erabileraren bitartez. "Adult"-en bitartez aztertutako laginaren adin tartea mugatzen saiatu naiz artikulatu pediatrikoak ez agertzeko helburuarekin.
8. EMBASE	(Crohn disease OR Inflammatory bowel disease) AND (Diet OR Diet therapy) AND Nurs*.mp. <i>+ filtro 2010-Current</i>	55	Izartxoaren bitartez erizaintzaren esku-hartzearekin lotura duten artikulatu guztiak barneratzeko erabili izan dudana estrategia arrakastatsua gauzatu da.
1.CINAHL	Crohn's disease AND (Diet OR Diet therapy) AND Adult <i>+ filtro 2010-Current</i>	93	Bilaketa eraginkorra. Aurreko datu-baseetan burututako bilaketa errepikatu dut, honetan emaitza kopuru aproposa lortuz.
2.CINAHL	Inflammatory bowel disease AND (Diet OR Diet therapy) AND Adult <i>+ filtro 2010-Current</i>	112	Bilaketa eraginkorra. Aurreko datu-baseetan burututako bilaketa errepikatu dut, honetan emaitza kopuru aproposa lortuz.
3. CINAHL	Crohn's disease AND Dietary interventions.mp.	17	Bilaketa eraginkorra. Aurreko datu-baseetan burututako bilaketa errepikatu dut, honetan lortutako emaitza kopurua txikiagoa izan arren, egokia izanik.

4. CINAHL	Inflammatory bowel disease AND Dietary interventions <i>+ filtro 2010-Current</i>	30	Bilaketa eraginkorra, honetan ez dut lengoia naturala erabili izan behar datu-base honetan, aurreko bietan ez bezala, erabilitako kontzeptuak barneratzen zituzten deskriptoreak baitzeuden.
5. CINAHL	Crohn´s disease AND (Dietary management OR Nutritional management) <i>+ filtro 2010-Current</i>	13	Bilaketa eraginkorra, honetan ez dut lengoia naturala erabili izan behar datu-base honetan, aurreko bietan ez bezala, erabilitako kontzeptuak barneratzen zituzten deskriptoreak baitzeuden.
6. CINAHL	(Crohn´s disease OR Inflammatory bowel disease) AND (Diet OR Diet therapy) AND Induction of remission.mp. <i>+ filtro 2010-Current</i>	44	Bilaketa eraginkorra, aurreko datu-basetan erabilitako bilaketa ekuazioa errepikatuz emaitza kopuru egokia lortu izan baita.
7. CINAHL	(Crohn´s disease OR Inflammatory bowel disease) AND (Diet OR Diet therapy) AND (Remission maintenance.mp OR Remission) <i>+ filtro 2010-Current</i>	116	Bilaketa eraginkorra, aurreko datu-basetan erabilitako bilaketa ekuazioa errepikatuz emaitza kopuru handia lortu baita.
8. CINAHL	(Crohn´s disease OR Inflammatory bowel disease) AND (Diet OR Diet therapy) AND Nurs*.mp. <i>+ filtro 2010-Current</i>	33	Izartxoaren bitartez erizaintzaren esku-hartzearekin lotura duten artikulua guztiak barneratzeko erabili izan dudana estrategia arrakastatsua gauzatu da, emaitza kopuru onargarria lortuz.

1.COCHRANE	Crohn disease AND (Diet OR Diet therapy)	11	Bilaketa eraginkorra, kontzeptu zabalak erabili izan arren honen bitartez lortutako emaitza kopurua nahikoa baita.
2.COCHRANE	Inflammatory bowel diseases AND (Diet OR Diet therapy) <i>+ filtro 2010-Current</i>	18	Bilaketa eraginkorra, aurreko bilaketarekin alderatuta, gaixotasunari dagokionez kontzeptu zabalagoa erabili izan arren honen bitartez lortutako emaitza kopurua nahikoa baita.
3.COCHRANE	Crohn disease AND Dietary interventions.mp. <i>+ filtro 2010-Current</i>	13	Bilaketa eraginkorra, kontzeptu zabalak erabili izan arren honen bitartez lortutako emaitza kopurua nahikoa baita.
4.COCHRANE	Inflammatory bowel diseases AND Dietary interventions.mp. <i>+ filtro 2010-Current</i>	17	Bilaketa eraginkorra, emaitza gehiago lortzeko helburuarekin hesteetako hanturazko gaixotasun guztiak biltzen dituen kontzeptua erabili arren honen bitartez lortutako emaitza kopurua egokia izan da.
5. COCHRANE	Crohn disease AND (Dietary management.mp. OR Nutritional management.mp.) <i>+ filtro 2010-Current</i>	24	Bilaketa eraginkorra, kasu honetan aurreko datu-baseetan erabilitako bilaketa ekuazioa berrerabiltzea baliagarria gauzatu da.
6. COCHRANE	(Crohn disease OR Inflammatory bowel diseases) AND (Diet OR Diet therapy) AND Remission Induction	3	Bilaketa ez da guztiz eraginkorra gauzatu emaitza kopurua oso txikia baita, behar bada deskriptore gehiegi eta zehatzegiak erabili izan dira.

	+ <i>filtro 2010-Current</i>		
7. COCHRANE	(Crohn disease OR Inflammatory bowel diseases) AND (Diet OR Diet therapy) AND (Remission.mp. OR Remission maintenance.mp.) + <i>filtro 2010-Current</i>	8	Bilaketa honen bitartez lortutako emaitza kopurua mugatua izan arren, eraginkorra gauzatu da.
8. COCHRANE	(Crohn disease OR Inflammatory bowel diseases) AND (Diet OR Diet therapy) AND Nurs*.mp + <i>filtro 2010-Current</i>	0	Bilaketa ekuazio zehatzegia, izartxoaren bitartez erizaintzaren esku-hartzearekin lotura duten artikuluguztiak barneratzeko erabili izan dudana estrategia ez da arrakastatsua gauzatu.


Ebidentzian oinarritutako praktika	Bilaketa ekuazioa	Emaizak	Aukeratutako artikulua	Oharrak
RNAO (Registered Nurses' Association of Ontario)	(Crohn disease) AND (Diet)	6	0	Bilaketa ez eraginkorra. Emaizak ez dute barneratze irizpideak betetzen, ez doaz bat gai edota helburuarekin.
RNAO (Registered Nurses' Association of Ontario)	(Crohn disease) AND (Dietary management)	18	0	Bilaketa ez eraginkorra. Emaizak ez dute barneratze irizpideak betetzen, ez doaz bat gai edota helburuarekin.
NICE (National Institute for Health and Care Excellence)	(Crohn disease) AND (Diet)	15	0	Bilaketa ez eraginkorra. Emaizak ez dute barneratze irizpideak betetzen, ez doaz bat gai edota helburuarekin.
NICE (National Institute for Health and Care Excellence)	(Crohn disease) AND (Dietary management)	6	0	Bilaketa ez eraginkorra. Emaizak ez dute barneratze irizpideak betetzen, ez doaz bat gai edota helburuarekin.

Aldizkaria	Bilaketa ekuazioa	Emaizak	Aukeratutako artikulua	Oharrak
Enfermería clínica	Enfermedad de Crohn y dieta	2	0	Bilaketa ez eraginkorra. Emaizak ez doaz bat helburuarekin.
Journal of Gastroenterology Nursing	Crohn´s disease AND Diet AND Remission + <i>filtro 2010-Current</i>	31	3	Bilaketa eraginkorra; hala ere, 28 artikulua kanporatu izan dira barneratze irizpideak ez betetzeagatik.

Beste artikuluetako bibliografiatik ateratako artikuluen izenburua

Fermentable Carbohydrate Restriction (Low FODMAP diet) in Clinical Practice Improves Functional Gastrointestinal Symptoms in Patients with Inflammatory Bowel Disease

5. Eranskina. Fluxu-diagrama



6. Eranskina. Ikerketa kuantitatiboko azterketaren irakurketa kritikoa

6.1. Eranskina. Ikerketa kuantitatiboko azterketaren irakurketa kritiko garatua

<p>Artikulu: Cox SR, Lindsay JO, Fromentin S, Stagg AJ, McCarthy NE, Galleron N, et al. Effects of Low FODMAP Diet on Symptoms, Fecal Microbiome, and Markers of Inflammation in Patients with Quiescent Inflammatory Bowel Disease in a Randomized Trial. <i>Gastroenterology</i>. 2020;158(1):176-188.</p>			
<p>Helburuak eta hipotesiak</p>	<p>Helburuak edo/eta hipotesiak argi eta garbi zehaztuta daude?</p>	<p>Bai HH Ez</p>	<p>Zergatik?</p> <p>Artikuluaren izenburu eta laburpenean argi azaltzen da ikerketaren helburua: FODMAP baxuko dieta batek hesteetako sintoma iraunkorren, hesteetako mikrobiomaren eta hantura-markatzaileen gainean dituen ondorioak ikertu, hesteetako hanturazko gaixotasun ez-aktiboa duten gizabanakoetan.</p> <p>P: HHG igorpen fasean duten gizabanako helduak.</p> <p>I: FODMAP baxuko dieta jarraitu lau asteetan zehar.</p> <p>K: Kontrol (“gold standard”) dieta jarraitu lau asteetan zehar.</p> <p>O: Helburu nagusia entsegu klinikoa aurrera eman ahala, hesteetako sintoma iraunkorra arintzea izan zen. Bigarren mailakoak berriz, bizi kalitatea, gaixotasunaren jarduera maila, hantura markatzaile mailak eta mikrobioma konposizio eta funtzioa hobetzea ziren.</p>
<p>Diseinua</p>	<p>Erabilitako diseinua mota egokia da ikerketaren helburuari dagokionez (helburuak edo/eta hipotesiak)?</p>	<p>Bai HH Ez</p>	<p>Zergatik?</p> <p>Artikulu kuantitatibo esperimentalen barru ausazko entsegu klinikoa, aurrera eramaten zen esku-hartzearen eraginkortasuna neurtzeko ikerketa diseinu egokiena da. Bertan, partaideak ausaz bereiztu zituzten bi taldeetan, esku-hartze taldeko gizabanakoek aztergai zen, FODMAP baxuko dieta jarraituz lau astez, eta kontrol taldekoek berriz “gold standard” delako kontrol dieta jarraituz denbora-tarte berean; modu honetan, esku-hartze eta kontrol taldekoen emaitzak</p>

			alderatuz, FODMAP baxuko dietak izan zezakeen eraginkortasuna aztertu zen. Gainera, itsutze sinplearen estrategia erabili izana, alborapenik emateko aukera murrizten du, gizabanakoek ez zekiten zein taldeko partaideak ziren eta biei zenbait karbohidratoren murrizketa emango zela jakinarazi zieten.
	Esku-hartze azterlan bat edo azterlan esperimental bat bada, esku-hartzea egokia dela ziurta dezakezu? Esku-hartzea sistematikoki ezartzeko neurriak jartzen dira?	Bai HH Ez	Zergatik? Argi eta garbi ezartzen da esku-hartze eta kontrol taldean aurrera eraman den interbentzioa azterlanaren hasieran, hau talde bakoitzeko kide guztiek jarraituz. Esku-hartze taldeak jarraitu beharko FODMAP baxuko dietaren oinarriak azaldu zituen; kontrol taldeak "gold standard" dieta jasoko zuela aipatu arren, ez zen azalpen handirik eman honen inguruan. Bestetik, ikertzaileek astero dietaren betetzea sustatu zen telefono deien bitartez, jarraitasuna ebaluatuz. Gainera ikerketaren amaieran galdetegi erraz baten bitartez taldekideen dietarekiko betetze-maila ebaluatu zen.
	Populazioa identifikatu eta deskribatu egin da?	Bai HH Ez	Zergatik? Esku-hartzearen aurretik, partehartzaileen ezaugarriak adierazten ditu; horretarako, talde bakoitzeko ezaugarrien batez bestekoak aurkezten ditu taula baten bitartez (adina, sexua, etnia, CG eta UK duten partaideen kopurua, gaixotasunaren kokapena eta jarduteko modua, IBS-SSS puntuazioa, medikazioa eta abar). Honetaz aparte, barneratze eta kanporatze irizpideak zehazten dira azterlanaren hasieran. Barneratze irizpideen barne, 18 urte baino gehiago, HHG igorpen fasean eta hesteetako sintomatologia iraunkorra izatea daude. Kanporatze irizpideak ere finkatu ziren: duela 12 aste baino gutxiago

Populazioaren kontzeptua eta lagina			tratamendu farmakologikoa aldatzea, estomazitatea, estenosi pairatzea ikerketa bitartean, larritasun handiko gaixotasunak izatea, haurdun egotea, edoskitzea...
	Laginketa-estrategia egokia da?	Bai HH Ez	Zergatik? Aurretik zehaztutako kanporatze eta barneratze irizpideetan oinarrituta eraiki zen lagina. Ondoren laginan barneratutako partaideen ausazko esleipena eraman zen aurrera, hauek esku-hartze eta kontrol taldean banatuz. Laginketa-estrategia grafikoki azaltzen zuen taula eraiki zen, emandako pausuak irudikatuz.
